



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

FARMAZEUTIKOAREN KONTZIENTZIA-ERAGOZPENA:

**Biharamuneko pilularen inguruan, Konstituzio
Auzitegiak emandako 145/2015 epaiaren harira**

Gradu Amaierako Lana

ZUZENBIDEAN GRADUA

2015/2016 IKASTURTEA

Ikaslea: JOSUNE GUERRA BARAIBAR

Zuzendaria: ANA LETURIA NAVAROA

2016ko uztailaren 1ean, Donostian.

AURKIBIDEA

LABURDURAK	4
I. SARRERA	5
II. KONTZIENTZIA-ASKATASUNAREN ETA KONTZIENTZIA-ERAGOZPENAREN KONTZEPTUAK	7
A. Kontzientziaren kontzeptua	7
B. Kontzientzia-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenaren kontzeptuak	8
C. Legez aitortuta dauden kontzientzia-eragozpenak: soldaduskarena, informazioaren profesionalena eta haurdunaldiaren borondatezko etetearen legezko garapena	12
D. Farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikusten duten araudi autonomikoak	16
III. KONTZIENTZIA-ERAGOZPENAREN ESKUBIDE GISA: IZAERA JURIDIKOA	17
A. Kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoa: doktrinan dauden jarrerak	17
B. Kontzientzia-eragozpenarekin gatazkak. Eskubideen arteko ponderazioak	23
IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 145/2015 EPAIA	25
A. Egitateak	25
B. Andaluziako Batzarreko Letradua	26
C. Ministerio Fiskala	29
D. Farmazeutiko-demandatzailea	31
E. Epaia	32

D. Adela Asua Magistratuaren boto partikularra	36
V. AZKEN ONDORIOAK: Nola gailendu zen farmazeutikoaren kontzientzia, emakumearen eskubideak bigarren mailan geratuz	41
BIBLIOGRAFIA	47
BALIABIDEAK INTERNETEN	48
JURISPRUDENTZIA	48
ARAUDIA	49

LABURDURAK

art.	artikulua
BP	Biharamuneko pilula/levonorgestrel pilula
Vol.	Volumen
CE	<i>Constitución Española</i>
CDFUE	<i>Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea</i>
EALO	Erljio Askatasunari buruzko Lege Organikoa
EZPNI	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
EK	Espainiako Konstituzioa
EBOEG	Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna
EGEA	Europako Giza Eskubideen Auzitegia
GEEH	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
lib.	Liburuki
LOLR	<i>Ley Orgánica de la Libertad Religiosa</i>
OJ	Oinarri juridikoa
or.	orrialdea
KA	Konstituzio Auzitegia
zk.	Zenbakia

I. SARRERA

2015eko ekainaren 25ean, Konstituzio Auzitegiak (KA aurrerantzean) farmazeutiko baten kontzientzia-eragozpenari buruzko lehenengo epaia eman zuen. Epaia gatazkatsua izan zen. Izan ere, jurisprudenzia konstituzionalak ez zuen farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aztertu lehenago. Bestetik, batzuen ustez, KAri aukera ematen zion kontzientzia-eragozpenari buruz zenbait argibide emateko. Hala ere, epaia honen garrantzia ez zetorren bi arrazoi horientatik bakarrik, egon ziren desadostasunengatik baizik. Izan ere, hori adierazten dute epaiari egindako hiru boto partikularrek.

Kasu hau Sevillan gertatu zen. Izan ere, Sevillan gizonezko bat preserbatiboak erostera joan zen farmaziara. Farmazian, aldiz, adierazi zioten beraiek ez zituztela preserbatiboak saltzen. Horren aurrean, bezeroak farmazia salatu zuen Administrazioaren aurrean, derrigorrez izan behar zuen produktu bat ez izateagatik.

Ondoren, Administrazioak farmaziari inspektzio bat egin zion, eta Administrazioa ohartu zen farmazeutikoak preserbatiboez gain, levonorgestrel pilula (“biharamuneko pilula” bezala ezagutzen dena, aurrerantzean BP) ere ez zituela, eta ondorioz, erabiltzaileek ezin zituztela eskuratu. Farmazeutikoak alegatu zuen, produktu horiek ez edukitzearen arrazoia, bere konbikzioak zirela. Izan ere, “bizitzari errespetu handia bat” ziola azaldu zuen. Gainera, Sevillako farmazeutikoen Elkargoak zuen Erregistroan objektore moduan inskribatuta zegoela adierazi zuen.

Andaluziako Administrazioak 3.300 eurotako isuna jarri zion, araudi autonomikoak derrigortzen zituen medikamentu eta produktuak ez edukitzeagatik. Horren ondorioz, farmazeutikoak lehenengo errekurtsio administratiboak eta ondoren errekurtsio judizialak tarteratu zituen, kontzientzia-eragozpena alegatuz. Izan ere, farmazeutikoaren konbikzioek eragotzi egiten zioten, BP eta preserbatiboak saltzea.

Bide administratiboan nahiz judizialean, arrazoia eman zitzaion Administrazioari, eta ez zen onartu farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena, jokoan zeuden herritarren interesak bermatzeko. Izan ere, erabiltzaileen sexu- eta ugalketa- eskubideak lehenetsi behar zirela kontsideratu zuten. Hain zuzen ere, interes horiek bermatzeko, legez aurreikusita zeuden farmazeutikoak eduki beharreko medikamentu

eta produktu sanitarioak. Hortaz, kontsideratu zuten, farmazeutikoak ezin zuela alegatu kontzientzia-eragozpena, legez jarrita zegoen betebeharrak ez betetzeko.

Hala ere, farmazeutikoak babes-helegitea jarri zuen KA,ren aurrean, alegatuz EK-ko 16.1 artikuluko ideologia-askatasunarekin lotura zuen kontzientzia-eragozpena urratu zitzaioela. KAK 2015eko ekainaren 25ean eman zuen 145/2015 epaia.

Farmazeutikoak babes-helegitea tartteratu zuenean, batez ere, bi arazo juridiko planteatu ziren. Alde batetik, ea ondorioztatu zitekeen, EKren 16.1 artikuluan oinarrituta, farmazeutikoak kontzientzia-eragozpenarako oinarritzko eskubidea zuela. Beste alde batetik, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena onartzekotan, zein egoeratan geratzen ziren herritarren, eta bereziki, emakumeen sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko eskubideak.

Arazo hauei aurre egiteko helburuarekin, lan honetan aztertuko da KAK emandako epaiaren harira, kontzientzia-eragozpenaren gaia, zehazki farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenarena. Hala nola, zer babes juridiko eskaini daitekeen gatazkan dauden gainerako interesei.

Horretarako, lehenik eta behin kontzientzia-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenaren kontzeptuak aztertuko ditugu, azpi-ataletan banatuz. Izan ere, behin kontzientzia-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenaren definizioak aztertu ondoren, legez aitortuta dauden kontzientzia-eragozpen kasuak eta KAren jurisprudentziari egingo diogu erreferentzia. Atal honekin amaitzeko, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikusten duten araudi autonomikoak aztertuko ditugu.

Hurrengo atalean, kontzientzia-eragozpenaren eskubidearen izaera juridikoa aztertuko dugu. Horretarako, kontzientzia-eragozpenaren inguruan dagoen doktrina adieraziko dugu. Izan ere, kontzientzia-eragozpenaren terminoaren eta ezaugarrien inguruan ez dago adostasunik.

Behin kontzeptuak azaldu ondoren, KAren 145/2015 epaiaren azterketari ekingo diogu.

Horretarako, epaiaren atal desberdinak azalduko ditugu, egon ziren posizio ezberdinak kontuan hartuta. Hain zuzen ere, zein zen haien jarrera aztergai izango diren

hainbat gairen inguruan, batez ere bi hauetan: kontzientzia-eragozpenaren izaerari dagokiona eta gatazkan dauden eskubide eta interesen arteko lehentasuna.

Izan ere, farmazeutikoaren kontzientzia-askatasuna babesteko, emakumearen sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea bigarren mailan geratu beharko litzateke? Zein aukera egongo liriteke gatazka hori bideratzeko?

II. KONTZIENTZIA-ASKATASUNA ETA KONTZIENTZIA-ERAGOZPENAREN KONTZEPTUAK

A. Kontzientiaren kontzeptua

Kontzientzia-eragozpena eta kontzientzia-askatasuna juridikoki aztertzen hasi aurretik, kontzientzia terminoaren esanahia aztertuko dugu.

Kontzientzia terminoak esanahi zabala du hainbat eremutan (eremu filosofiko, etiko, psikologiko, medikua...etab.) Askotan erabili ohi da **kontzientzia** terminoa erreferentzia egiteko *ongi dagoena* eta *gaizki dagoena* bereizteko ahalmenari¹. Baita *egin behar duguna* eta *egin behar ez duguna*, eta aukera ezberdinen artean aukeratzeari erreferentzia egiteko ere. Adierazi ohi da ere bai, **kontzientzia** da *gure portaera zuzentzen duen araua*².

Baina kontzientzia kontzeptuak badu ere beste adiera bat, gure azterketa eremura gehiago gerturatzen dena: pertsonaren identitatea zehazten duten konbikzioena.

Ildo honetan, LLAMAZARES FERNÁNDEZ autorearen aburuz, esan dezakegu **kontzientzia** bakoitzaren identitate pertsonala askatasun osoz sentitzeko gaitasuna dela. Hain zuzen ere, gertatzen zaizkion aldaketak eta ekintzak, bere historiari batasuna emango diotenak (egiten duena, egiten ez duena eta gertatzen zaiona)³.

Adiera honen baitan, kontzientziak giza-duintasunarekin lotura estua du. Hain zuzen ere, eta aztertuko dugun moduan, juridikoki EK-ko 10.1 artikulua edukiarekin.

¹ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática y objeción de conciencia*. Madrid: Dykynson, 2008, 51-52 or.

² *Ibidem*, 51-52 or.

³ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia, vol I, Conciencia, tolerancia y laicidad*, 4.ed. Pamplona: Civitas, 15 or.

Izan ere, esan dezakegu lotura estua dagoela pertsonaren kontzientziaren eta pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen askearen artean⁴.

Ildo honetan, kontzientziaz aritzen garenean, pertsonen konbikzioei egiten diegu aipamen. LLAMAZARES FERNÁNDEZ autoreak dioen moduan, *konbikzio* deitzen diegu bakoitzaren eta ingurukoen ideiak eta sinesmenak, iraganekoak eta etorkizunekoak, pertsonak bizitzen dituenak eta **bere izaeraren euskarri sakon** moduan sentitzen dituenak aipatzeko. Horiek osatzen dute *identitate pertsonala*, zeinen eraketa eta garapena askea izan behar duen. Bizipen eta sentimen horiek pertsonaren muina osatzen dute⁵.

Konbikzioek kosmosaren ikuspegi bat edo beste izateko, erlijiosoak edo ez erlijiosoak, hala nola gure identitatea ulertzeko balio digute⁶. Konbikzioek duten ziurtasun maila dela eta, hala nola, pertsonaren izaerarekin eta identitatearekin duten loturagatik, aitorpen eta babes berezia dute ordenamendu juridiko demokratikoetan.

Horren adierazgarri da EK-ko 16. artikuluan⁷ egiten den oinarrizko eskubidearen aitorpena.

B. Kontzientzia-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenaren kontzeptuak

Ikuspuntu juridikoa kontuan hartuta, Kontzientzia-askatasuna EK-ko 16.1 artikuluan⁸ aitortzen da: *bermatzen da gizabanakoen eta komunitateen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna; muga bakarra, haien agerbideetan, legez babestutako ordena publikoa gordetzeak eskatzen duena izango da⁹.*

Konstituzioan bertan, ez da agertzen “kontzientzia-askatasuna” terminoa hitzez hitz, hala ere, doktrina eta jurisprudenzian adostasunez onartzen da, <<ideologia-,

⁴ *Ibidem*, 16 or.

⁵ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática...*, cit., 53. or.

⁶ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia, vol. I...*, cit., 19. or.

⁷ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática...*, cit., 53 or.

⁸ CE art. 16.1 Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.

⁹ Espainiako Konstituzioa itzultzeko Leyes-legeak bilduma jarraitu da:

<https://www.ehu.eus/documents/2660428/2799934/Legeak01.pdf> Azken kontsulta data: 2016-06-29.

erlijio- eta kultu-askatasuna>> adierazten denean EK-ko 16.1 artikuluan, inplizituki aitortzen dela kontzientzia-askatasuna¹⁰.

Ildo honetan, kontuan hartzekoak dira, **nazioarteko zuzenbidearen eremuan**, oinarritzko eskubideak aitortzen dituzten nazioarteko hitzarmenak. Izan ere, EK-ko 10.2 artikulua¹¹ arabera, estatuak sinatu eta berretsi dituen hitzarmenak kontuan hartu beharko dira EK-ko oinarritzko eskubideak interpretatzerako garaian.

Hain zuzen ere, nazioarteko arau zein zuzenbide komunitarioaren eremuan, erabili eta aitortzen den eskubidearen izendapena **pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunarena da**¹².

Kontzientzia-askatasuna **funtsezko oinarritzko eskubidea** da sistema demokratikoetan. Eskubide horretan dute bere oinarria pertsonaren gainerako hainbat oinarritzko eskubidek¹³.

Horregatik, EK-ren 16.1. artikulua modu egokian interpretatzeko, kontuan hartu behar dira sistema konstituzionalean gidalerro diren hainbat *printzipio* eta *balio*. Hain zuzen ere, EK-ko 1.1, 2, 9,2 eta 10.1 artikuluetan jasoak. Izan ere, garrantzia berezia du estatu-ereduak eta hori inspiratzen duten balio nagusiek, kontzientzia-askatasunari emango zaion tratamendu juridikoan. Esaterako, oso desberdina izango da kontzientzia-askatasunaren esanahia eta edukia *estatu demokratiko pluralista* batean, zeinean askatasun hau aitortuta dagoen, edo ideologikoki *estatu monista* batean, non ez den kontzientzia-askatasunik aitortzen.

Hain zuzen, EK-ren 1.1 artikuluan¹⁴, adierazten da Espainia *zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa* dela. Eta bere balio nagusi bezala, *askatasuna, justizia, berdintasuna* eta *aniztasun politikoa* aldarrikatzen ditu.

Ordenamenduko balio nagusien artean, aipatzekoa da ere Konstituzioak 10.1 artikuluan¹⁵ adierazten duen pertsonaren *duintasuna*, pertsonari berez dagozkion

¹⁰ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol I..., cit., 18. or.

¹¹ CE art. 10.2: *Las normas relativas a los derechos fundamentales y a las libertades que la Constitución reconoce se interpretarán de conformidad con la Declaración Universal de Derechos Humanos y los tratados y acuerdos internacionales sobre las mismas materias ratificados por España.*

¹² Gazteleraz erabili ohi den esamoldea da: *libertad de pensamiento, conciencia y religión.*

¹³ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol I..., cit., 23. or.

¹⁴ CE 1.1: *España se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político.*

eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen libre, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua oinarri dituztela ordena politikoak eta gizarteko bakeak.

Ildo berean, aipatzekoa da ere, EK-ko 9.2 artikuluan¹⁶, non adierazten den botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituztela herritarren eskubide eta askatasunak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; behar diren bideak jarriz eta oztopoak kenduz.

Zentzu honetan, garrantzia berezia du ere, kontuan izatea EK-ren 16.3¹⁷ artikulua. Bertan adierazten da zein izango den estatuaren jarrera fenomeno erlijiosoaren aurrean. Aurreikusten da, estatua neutrala izango dela fenomeno erlijiosoaren aurrean. Bide batez, Estatuak konfesio erlijiosoekin lankidetzaz-harremanak izango dituztela aurreikusten da. Dena den, kontuan izanda EK 16.1ean aitortzen den kontzientzia-askatasuna, horrek ez du esan nahi, herritarrak ere neutralak izan behar dutenik.

Honekin loturik, EK-ko 14. artikulua¹⁸ aurreikusten duen **berdintasun printzipioa**. Horren baitan, debeku da inolako diskriminaziorik egitea, besterik beste jaiotza, arraza, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ autorearen doktrina jarraituz, kontzientzia-askatasunaren edukia *eremu desberdinetan sistematizatu* daiteke¹⁹. Lehenengo mailan, kontzientzia-askatasunak gizabanakoari aitortzen dio **uste sendo edo iritzi propioak** edukitzeko ahalmena. Bertan kokatzen ditu pertsonaren ideiak eta sinesteak, ziurtasun maila sendoa lortzen dutenean. Bereziki, *norberaren identitatearen muina* eratzten

¹⁵ CE art. 10.1: *La dignidad de la persona, los derechos inviolables que le son inherentes, el libre desarrollo de la personalidad, el respeto a la ley y a los derechos de los demás son fundamento del orden político y de la paz social.*

¹⁶ CE 9.2 art: *Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas; remover los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social.*

¹⁷ CE art. 16.3: *Ninguna confesión tendrá carácter estatal. Los poderes públicos tendrán en cuenta las creencias religiosas de la sociedad española y mantendrán las consiguientes relaciones de cooperación con la Iglesia Católica y las demás confesiones.*

¹⁸ CE art. 14.1: *Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.*

¹⁹ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol I..., cit., 21. or.

dutenean. Uste sendo bat edo bestea edukitzeko eskubidearekin batera, norberaren kontzientzia askatasunez eratzeko eskubidea bilatzen da lehen maila honetan²⁰.

Horrekin batera, kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio **gizabanakoari bere kontzientzia eratzten duten konbikzioak adierazteko, eta baita besteei helarazteko ere**²¹.

Azkenik, **kontzientzia-askatasunak aukera eskainiko dio gizabanakoari bere konbikzioen arabera jarduteko**, eta, era berean, kontzientzia horren kontra jardutera behartua ez izateko²². Dena den, eremu hau ez da mugagabea, izan ere, gatazkak sortu daitezke pertsonaren konbikzioen eta arauak aurreikusten duen betebeharraren artean. Modu honetako gatazkak sortzen direnean, egongo gara kontzientzia-eragozpenaren eremuan. Gatazka horiek sortzen direnean, hainbat kasutan ordenamendu juridikoak betebeharrak ezartzen dizkie herritarrei, betebeharrak horiek, hainbat pertsonen konbikzioak urratuz.

Kontzientzia-eragozpenetan, gatazka bat ematen da **estatuko arauen** eta norbaiten **kontzientziako arauen** artean. Pertsona horrentzat bi arauak dira bete beharrekoak. Izan ere, estatuak ezarritako arauak lotesleak dira herritar guztientzat. Kontzientziako arauak, pertsonaren barne eremua lotzen du. Eta sineste hori duenarentzat loteslea izango da.

Kontzientzia-eragozpenaren terminoari dagokionez, norbanakoaren erreakzio gisa kontsideratzen da. Erreakzio hori *arau juridikoaren* eta *arau etiko edo moralaren* arteko **benetako kontraesan bat** ematen denean sortzen da. Hau da, arau batek debekatzen duena besteak betebeharreko tipifikatzen duenean²³.

Zuzenbidezko estatu demokratikoetan, arau juridikoak borondate orokorraren adierazpena izan ohi dira. Izan ere, gehiengoak onesten ditu, eta arau hauek herritar hauei zuzenduak egongo dira, pertsona guztiek bete behar dituztelako arauak. Hots, pertsona guztientzat berdinak direlako arau hauek. Baina, kasu batzutan, gehiengoaren kontzientzia kolektiboa ez da beti izaten hainbat *gutxiengoen* adierazpena, eta gutxiago,

²⁰ *Ibidem*, 21-22 or.

²¹ *Ibidem*, 22 or.

²² *Ibidem*, 22 or.

²³ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol. II..., cit., 320.or.

bakoitzaren kontzientziaren adierazpena. Anitza, plurala den Estatu demokratiko orotan, ohiko izango dira desadostasunak²⁴.

Legegileak, konbikzioekiko *sentsibleak* diren gaien inguruan arautu behar duenean, ondo legoke kontuan hartzea zeintzuk diren tartean dauden sentsibilitate desberdinak²⁵.

Aurretik aipatu ditugun EK-ko gidalerro diren printzipio eta baloreak (EK 1.1, 10.1, 9.2, 14) dituen ordenamendu juridiko batean, minoria kulturalentzat, pluralismoa bermatzen saiatu beharko lirateke. Horrek kasuan kasuko berezitasunak aztertuta, suposatu dezake, ordenamendu juridikoaren barruan, salbuespen batzuk egitea, identitate kultural ezberdinei erantzuteko²⁶.

Hain zuzen, hori da gertatu dena indarrean dagoen ordenamendu juridikoan legez aitortuta dauden hainbat kontzientzia-eragozpeneko kasuen inguruan.

C. Legez aitortuta dauden kontzientzia-eragozpenak: soldaduskarena, informazioaren profesionalena eta haurdunaldiaren borondatezko etetearen legezko garapena

Espainiako ordenamendu juridikoan, badaude kontzientzia-eragozpenaren inguruan hitzez hitz aitortuta egiten zaien hainbat kasu. Atal honetan, **legez eta Konstituzioan** aitortuta dauden kontzientzia-eragozpenak adieraziko ditugu.

Batetik, Konstituzioan bi kasu aurreikusten dira: soldaduskaren kontzientzia-eragozpena eta informazioaren profesionalen kontzientzia-klausula.

EK-an 30.2 artikulua²⁷ adierazten du lege batek arautuko duela soldaduskaren eremuko kontzientzia-eragozpena. Erregulazio hori 48/1984 Legeak egin zuen eta

²⁴ *Ibidem*, 319. or.

²⁵ *Ibidem*, 320. or.

²⁶ *Ibidem*, 320. or.

²⁷ CE art. 30.2: *La ley fijará las obligaciones militares de los españoles y regulará, con las debidas garantías, la objeción de conciencia, así como las demás causas de exención del servicio militar obligatorio, pudiendo imponer, en su caso, una prestación social sustitutoria.*

indarrean egon zen 1998ko uztailaren 27 arte²⁸. Bestalde, EK-ko 20.1.d).II. artikulua²⁹ adierazten du lege batek arautuko duela informazioaren profesionalen kontzientzia-klausula. Hain zuzen ere, hori garatzen du Ekainaren 19ko 2/1997 Lege Organikoak, *Informazio Arloko Profesionalen Kontzientzia Klausula Arautzen duenak*.

Ulertzekoa da Konstituzioak bi aipamen horiek bakarrik egitea, EK-ko 9.1. artikulua³⁰ printzipio nagusi gisa jasotzen badu herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta ordenamendu juridikoaren menpe daudela.

Honen harira, **legezkotasun printzipioa** azpimarratu behar dugu. Izan ere, printzipio horrek gutxieneko **segurtasun juridiko** bat bermatzen du. Hortaz, araudiaren zehaztasuna gero eta handiagoa izan, eskubidearen hedadura eta mugak hobeto zehaztuko dira³¹. Ikuspuntu honetatik, kontzientzia-eragozpena **salbuespenezko eskubide bat kontsideratu beharko litzateke, eta bere egikaritza salbuespenezkoa izan beharko luke**. Beraz, ez litzateke posible izango edozein obligaziotik aske uzten duen kontzientzia-eragozpenerako arau orokor bat aurreikustea. Izan ere, hori egoteak, zuzenbidearen ezeztapena suposatuko luke³².

Izan ere, EK-ko hitzak kontuan hartuta, ez da existitzen hitzez hitz kontzientzia-eragozpenerako aitortpen orokorrik jasotzen. Beti ere, salbu utzita Konstituzioak jasotzen dituen bi kasu horiek.

Bi kasu hauez gain, kontzientzia-eragozpeneko kasuak aitortzen dira ere lege bitartez. Hain zuzen ere, *Sexu- eta ugalketa-osasuna eta haurdunaldiaren borondatezko etenari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan*³³. Lege Organiko horretan,

²⁸ Ley 48/1984, de 26 de diciembre, Reguladora de la Objeción de Conciencia y de la Prestación Social Sustitutoria. http://noticias.juridicas.com/base_datos/Derogadas/r0-148-1984.html Azken kontsulta data: 2016-06-31.

²⁹ La ley regulará el derecho a la cláusula de conciencia y al secreto profesional en el ejercicio de estas libertades.

³⁰ CE art. 9.1: Los ciudadanos y los poderes públicos están sujetos a la Constitución y al resto del ordenamiento jurídico.

³¹ CASTRO JOVER, Adoración, “La libertad de conciencia y la objeción de conciencia individual en la Jurisprudencia constitucional española” in *La libertad religiosa y de conciencia ante la justicia constitucional. Actas del VIII Congreso Internacional de Derecho Eclesiástico del Estado, 13-16 de mayo de 1997*, Comares, Granada, 1998, 143. or.

³² LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol. II..., cit., 325.orr.

³³ Euskaraz erabilitako terminologia kontsultatzeko <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/legeak-leyes-bilduma> orrialdera jo dugu. Azken kontsulta data: 2016-06-29.

profesional sanitarioen³⁴ kontzientzia-eragozpena aitortzen da abortuak egitearen aurrean.

Aipatu ditugun legez aitortuta dauden kontzientzia-eragozpeneko kasuen inguruan, jurisprudentziak ere azaldu du bere jarrera.

Dena den, aurrerago aztertuko dugun moduan, gai honen inguruan, doktrina eta jurisprudentzia ez da ildo berekoa. **Gutxienez, bi jarrera daude** eta ildo horretan ere kokatzen da KAren jurisprudentzia.

Aipatzekoak dira KA-ren 53/1985 eta 15/1982 epaiak. KA-ren jurisprudentziari dagokionez, azpimarratuko dugu kontzientzia-eragozpenaren aitortpenaren ingurua KA-k bere jarrera bikoitza erakutsi zuela. 53/1985 epaian azaldu zuen, kontzientzia-eragozpena alegatu zitekeela, zuzenean EK-ko kontzientzia-askatasuna alegatuta, legezko aitortpenik gabe. 15/1982 epaian, ordea, azpimarratu zuen, legez aurreikusi gabe ezin alegatu zitekeela kontzientzia-eragozpena betebeharrak ez betetzeko.

Aztertzeko gaia da “*Interpositio legislatoris*” delakoaren beharra. Adierazpen honen arabera, kontzientzia-eragozpena baliatu ahal izateko, araudiak, oro har legez, aitortpen hori aurreikusi beharko du³⁵.

Dena den, KA-k “*Interpositio legislatoris*” delakoren inguruan, aipatu ditugun bi epaietan, hartu zuen erabakia ezberdina izan zen bi kasutan.

Konstituzio Auzitegiak abortuaren KAE 53/85 epaian, honakoa adierazi zuen “**interpositio legislatoris**” delakoari buruz:

*“(…) por lo que se refiere al derecho a la objeción de conciencia, que **existe y puede ser ejercido con independencia de que se haya dictado o no tal regulación. La objeción de conciencia forma parte del contenido del derecho fundamental a la libertad ideológica y religiosa reconocido en el artículo 16.1 de la Constitución y, como ha***

³⁴ Lege Organikoaren 19.2.II artikulua dauka garrantzia gure kasuarekiko. Izan ere, bertan jasotzen da haurdunaldiaren borondatezko eteteen zuzenean inplikaturik dauden osasun-langileak kontzientzia-eragozpenaren eskubidea edukiko dutela. Kontzientzia-eragozpena baliatu ahal izateko, jartzen den muga prestazioaren kalitateak eta sarbideak ezin direla kaltetuak gertatu da osasun-langileen kontzientzia-eragozpenaren egikaritzan.

³⁵ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol. II..., cit., 328.or.

*indicado este Tribunal en diversas ocasiones, la Constitución es **directamente aplicable**, especialmente en materia de derechos fundamentales³⁶.*

Kasu honetan, KA-k ez zuen beharrezko kontsideratu, arauak aurreikustea abortuari kontzientzia-eragozpena baliatu ahal izateko. Izan ere, Auzitegiak **EK-ren 16.1 artikulutik zuzenean ondorioztatu baitzuen kontzientzia-eragozpenerako eskubidea**.

Aldiz, egoera bestelakoa izan zen KA-k **soldaduskaren** inguruko kontzientzia-eragozpenaren inguruan epaia eman zuenean. Izan ere, KA-k 15/1982 Epaian **interpositio legislatoris-a** exijitu zuen kontzientzia-eragozpena aitortzeko³⁷.

*“(…) la objeción de conciencia exige para su realización la delimitación de su contenido y la existencia de un procedimiento **regulado por el legislador** en los términos que prescribe el art. 30.2 de la Constitución, con las debidas garantías, ya que **sólo si existe tal regulación puede producirse la declaración en la que el derecho a la objeción de conciencia encuentra su plenitud**»³⁸.*

Laburbilduz, KA-k **abortuaren epaian** Konstituzioa zuzenean aplikagarria zela kontsideratu zuenez, erabateko eraginkortasuna eman zion abortuari egindako kontzientzia-eragozpenari. Aldiz, **soldaduskari egindako** kontzientzia-eragozpenerako, legegileak garatu behar zuela adierazi zuen.

Irizpide aldaketa honek garrantzia dauka gure lanari begira. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, KA-ren irizpidea malgutu egiten da tartean dagoen ondasun juridikoa *nasciturusaren bizitza* denean. Izan ere, soldaduskarekin eta abortuarekin hartu zituen erabakiak aztertzen badira, irizpide aldaketa nabarmena ikus dezakegu.

Gai hauek aztertu dituen doktrinaren artean ere, jarrera desberdinak daude kontzientzia-eragozpena eta bere legezko aitoren behararen inguruan. Laburbilduz, ikus dezakegu nola autore batzuk pentsatzen duten abortuaren epaian egindako baieztapen hori, osasun-langileek kontzientzia-eragozpenerako eskubidea zutela, ezin daitekeela gainerako kasuetara zabaldu³⁹. Aldiz, beste autore batzuk⁴⁰, epai

³⁶ AKE 1985-04-11 (RTC 1985, 53)

³⁷ AKE 1982-04-23 (RTC 1982, 15)

³⁸ AKE 1982-04-23 (RTC 1982, 15)

³⁹ Beste batzuen artean, CASTRO JOVER, Adoración autoreak, adierazten du kontraesankorra dela abortuaren epaian, izaera orokorrekarekin kontzientziaren arabera jardutearen alde egitea. Bere ustez, KAK

beretik ondorioztatzen dute badagoela kontzientzia-eragozpenerako oinarrizko eskubide bat.

D. Farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikusten duten araudi autonomikoak

Aztergai dugun kasuari lotuta, aipatu behar da ez dagoela farmazeutikoen kontzientzia-eragozpenaren inguruan Estatuak emandako araudirik. Hala ere, Autonomia Erkidego batzuk aurreikusi dute bertako araudi autonomikoetan farmazeutikoek objektatzeko aukera.

Zehazki, nahiz eta Espainiako ordenamendu juridikoan ez dagoen lege-mailako araurik farmazeutikoari kontzientzia-eragozpena aurreikusten diona, Autonomia Erkidego batzuk aurreikusi dute kontzientzia-eragozpena BPren kasurako.

Esaterako, **Errioxako** Autonomia Erkidegoko Farmazeutiko Antolakuntzako 8/1998 Legeak farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikusten du, beti ere ez bada pazientearen edo erabiltzailearen osasuna arriskuan jartzen⁴¹. **Bestetik**, Galiziako Farmazeutiko Antolaketako 5/1999 Legearen 6. artikulua, Administrazioa behartzen du farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenerako eskubideak ez dezan herritarren osasunerako eskubidea kaltetu. Eta hau gertatzen denean, salbuespenezko neurriak hartu daitezkeela adierazten da kontzientzia-eragozpenerako eskubidea babesteko eta herritarren osasun-eskubidea bermatzeko⁴².

baieztapen hori *obiter dictum* gisa egin zuenez, ezin daitezkeela argudio horretatik esan kontzientzia-eragozpenerako eskubidea dagoenik.

CASTRO JOVER, Adoración, Op. cit., 185. or.

⁴⁰ Horien artean, MARTÍNEZ-TORRÓN eta NAVARRÓ-VALLS. Hauen aburuz, 53/1985 epaiaren bidez kontzientzia-eragozpena ondorioztatu daiteke.

MARTÍNEZ-TORRÓN, Javier eta NAVARRO-VALLS, Rafael, *Conflictos entre conciencia y ley, Las objeciones de conciencia*. Madrid: Iustel, 2011, 5.or.

⁴¹ Errioxako 8/1998 Legearen 5.10 artikulua: *En su actividad profesional queda reconocido el derecho a la objeción de conciencia del farmacéutico, siempre que no se ponga en peligro la salud del paciente o usuario.*

⁴² CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia: estructura y pautas de ponderación. Cuadernos de Derecho Constitucional*. España: Bosch, 2013, 78-79 or.

Gaztela-Mantxan, Farmazeutiko Zerbitzu Antolaketako 5/2005 Legeak⁴³, bere 17. artikuluan, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenerako eskubidea aitortzen du. Eta Osasun Kontseilaritza behartzen du eskubide horrek gainerako herritarren eskubideak mugatu ez ditzan⁴⁴.

Kataluniako kasuak berezitasunak ditu. Generalitateak 2009an Kataluniako Farmazeutikoen Elkargoaren Kontseiluarekin protokolo bat adostu zuen, *medikuen errezetarik gabe larrialdizko antisorgailuak erosteari buruzkoa*. Bertako 3.2 artikuluan, modu esplizituan aitortzen da BP emateko farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena. Baina aitortpen hau Autonomia Erkidegoaren eta Sektoreko Antolaketa pribatuaren arteko akordio bat besterik ez da. Hortaz, ez dauka inongo eragin juridikorik herritarrentzat⁴⁵.

Aipatutako Autonomia Erkidegoetan, kontzientzia-eragozpena aurreikusten da beraien legedi autonomikoetan. Baina aldi berean, legedi autonomiko horiek Administrazioei behartzen die dagokion ponderazioa egin, eta biak egikaritu ahal izateko neurriak hartzeko. Beraz, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena eta pazienteen eskubideak uztartzen ditu azken horiek kaltetuak gertatu ez daitezten. Eta bietako eskubide bat gailendu behar bada, aurretik adierazi dugun moduan, Gaztela-Mantxako eta Errioxako araudietan, pazientearena gailendu behar dela jasotzen dute.

Hala ere, aurrerago ikusiko dugun epaiari lotuta, aipatu behar da aztertuko dugun farmazeutikoaren kasua Sevillan gertatu zela eta Andaluziari dagokionez, ez dagoela farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aitortzen duen legeri autonomikorik.

Atal hau aztertzearen arrazoia, gai honekin sortutako arazoei konponbide bat bilatzeko nahia da. Izan ere, aurrerago azalduko dugun moduan, BP ez saltzeak kalteak eragin ditzake emakumeen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidean. Modu honetan, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena eta emakumeen eskubideak uztartzeko, AE hauek hartutako erabakia arrazoizkoa izan daiteke. Izan ere, neurriak hartzen dira BP ez ematearen ondorio kaltegarriak ez sortzeko.

⁴³ Lege hau otsailaren 19ko 2 /2015 Legeak aldatu du. http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/547274-1-2-2015-de-19-feb-ca-castilla-la-mancha-modifica-la-ley-5-2005-de-27-de.html Azken kontsulta data: 2016-06-29.

⁴⁴ CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia...*, Op cit. 79. or.

⁴⁵ *Ibidem*, 79-80. or.

III. KONTZIENTZIA-ERAGOZPENA ESKUBIDE GISA: IZAERA JURIDIKOA

A. Kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoa: doktrinan dauden jarrerak

Doktrinak kontzientzia-eragozpena aztertu duenean, nolabaiteko adostasuna dago bi ideietan: arrazoi ideologikoengatik *zuzenbidea desobeditzen* dela eta desobeditzen dena *legezko betebeharrak* bat ezartzen duen zuzenbideko arau juridiko bat dela. Baina hemendik aurrera, kontzientzia-eragozpenaren inguruan dagoen doktrinaren inguruan ezberdintasunak nabariak dira⁴⁶.

Autore batzuen ustez, subjektuaren konbikzioaren eta mandatu juridikoaren arteko *talka soilak* da kontzientzia-eragozpena. Hala ere, doktrinaren gehiengoak, **gatazka kanporatzearekin** ulertzen du **kontzientzia-eragozpena**. Hain zuzen ere, **arau moralaren** eta **arau juridikoaren** artean sortzen den gatazka kanporatzen denean.

Beste autore batzuk, aldiz, desobedientzia moduan ulertzen dute kontzientzia-eragozpena. Izan ere, autore batzuk kontsideratzen dute kontzientzia-eragozpena **erresistentzia edo desobedientzia zibila** bezalako fenomenoetara lotuta dagoela. Ulertzen baitute beraien helburua dela arauen injustizia salatzea, eta ez bakarrik pertsonaren konbikzioak defendatzea. Horrela, **kontzientzia eragozpena** zuzenbidearen aldaketa lortzeko helburu gisa ulertzen dute. Hala ere, doktrinaren gehiengoaren aburuz, **kontzientzia-eragozpena norbanakoaren moralaren edo uste sendoen defentsan amaitzen da**, eta ez da, beraz, ordenamendu juridikoaren injustiziaren salaketarako mekanismo bat, nahiz eta zuzenbidea desobeditzeko beste forma bat bezala ere ulertu daitekeen⁴⁷.

Beraz, **kontzientzia-eragozpena kontzientziako arauaren eta arau juridikoaren** artean **kontraesana** ematen denean sortzen den **erreakzio** gisa definitu dezakegu⁴⁸.

⁴⁶ *Ibidem*, 49-50. or.

⁴⁷ *Ibidem*, 52-53. or.

⁴⁸ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia*, vol. II..., cit., 320.or.

Doktrinan dauden ikuspegi ezberdinak aztertu ondoren, **kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoari dagokionez, bitan sistematizatuko dugu kontzientzia-eragozpenaren inguruan dagoen doktrina.**

Batetik, **EK-ko 16.1 artikulutik kontzientzia-eragozpenarako oinarrizko eskubide bat dagoela ondorioztatzen dutenak** egongo lirateke. Bestetik, **EK-ko 16.1 artikulutik zuzenean kontzientzia-eragozpenarako eskubiderik ez dagoela kontsideratzen dutenak.** Azken hauen ustez, kontzientzia-eragozpena eskubide kontsideratu ahal izateko, aukera hori lege bitartez aurreikusia egon beharko da.

Lehenengo taldean sailkatu ditzakegun autoreen artean, GASCÓN ABELLÁN dago, zeinen ustez badagoen **kontzientzia-eragozpenarako eskubide orokor bat**⁴⁹. Sailkapen honetan barneratu ditzakegu MARTÍNEZ-TORRÓN eta NAVARRO-VALLS autoreak ere. Horien aburuz, kontzientzia-eragozpena EK-ko 16. artikuluan aitortzen den oinarrizko eskubidearen zehaztapena da, oinarrizko eskubide kontsideratuz.

Beraien ustez, kontzientzia-eragozpena, EK 16tik ondorioztatutako eskubide kontsideratuta, gatazkan dagoen beste interes batzuekin aztertu behar da, hau da, **interesen arteko ponderazio** bat egin behar dela defendatzen dute⁵⁰. Beraien aburuz, “*posizio legalistek*”⁵¹ egiten duten analisia baino zehatzagoa delako.

Autore hauek gatazkan dauden **interes juridikoak *ad casum* aztertu behar direla** defendatzen dute. Eta hori egin ostean, horietako zein gailendu behar den ikusi. Beraien ustez, lege bat kontzientzia-askatasunaren aginduen aurka inposatzea, oinarrizko eskubide bat mugatzea da⁵².

KA-ren 53/1985 epaian oinarrituz, kontzientzia-eragozpena kontzientzia-askatasunaren adierazpen bat dela defendatzen dute. Epai hartan Konstituzioa zuzenean aplikagarria zela esan zenez, kontzientzia-eragozpenaren babesa epaitegi eta

⁴⁹ CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia...*, cit. 66. or.

⁵⁰ MARTÍNEZ-TORRÓN, J. eta NAVARRO-VALLS, R. *Conflictos entre conciencia y ley...*, cit. 37. or.

⁵¹ Autoreek doktrina bitan klasifikatzen dute. Batetik, beraien jarraitzen duten posizioa egonen litzake, zeinaren arabera kasu zehatz bakoitzean interesen ponderazio bat egin beharko den. Bestetik, “posizio legalista” deitzen dienak daude. Beraien ustez, azken hauek kontzientzia-eragozpena onartzen dute *interpositio legislatoris* dagoenean soilik. Autoreen ustez, kontzientzia-eragozpena alegatzeko aukera baztertzea *a priori* diskriminazioa da gutxiengo erlijiosoentzat.

⁵² MARTÍNEZ-TORRÓN, J. eta NAVARRO-VALLS, R. *Conflictos entre...* cit. 39. or.

auzitegietan egin daitekeela ulertzen dute. Beraien ustez, kontzientzia-eragozpena baliatu ahal izateko, ez da zertan araudian aitortu behar⁵³.

Aipagarria da MARTÍNEZ-TORRÓN eta NAVARRO-VALLS autoreek kontzientzia-eragozpena nola ulertzen duten adierazteko honakoa esatea:

*“(...) un adecuado planteamiento jurídico de las objeciones de conciencia lleva a entender, como punto de partida imprescindible, que el objetor de conciencia no es primordialmente un infractor de la norma. Es, sobre todo, **una persona que ejerce un derecho fundamental, la libertad de conciencia, que como tal forma parte del ordenamiento jurídico, y que ocasionalmente puede conducir al incumplimiento de una ley**”⁵⁴.*

Autore hauen ikuspuntua laburbiltzeko, esan daiteke beraientzako objektoreak ez duela arau hauste bat egiten. Beraien aburuz, **oinarrizko eskubide bat baliatzen duen pertsona bat da. Autore hauek EKko 16.1. artikuluan aurreikusten den kontzientzia-askatasunetik, kontzientzia-eragozpenerako oinarrizko eskubide bat dagoela ondorioztatzen dute.**

Bestalde, badaude doktrinan beste autore batzuk, zeintzuekin bat egiten dugun, esaterako, LAMAZARES FERNÁNDEZ eta CASTRO JOVER autoreak. Autore hauek beharrezkoa ikusten dute kasu bakoitzean, **gutxienez legez araututa egotea kontzientzia-eragozpenerako eskubidea**⁵⁵. Modu honetan, CASTRO JOVER autoreak ulertzen du, kontzientzia eta legez jasotako betebeharraren artean gatazka dagoenena, kontzientziaren arabera jardutea zuzenbidetik at dagoela, arauak (betebeharra aurreikusten duenak) ez badu bere salbuespena aurreikusten⁵⁶.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ autoreak adierazten du zuzenbidearen eraginkortasuna ez bada galdu nahi behintzat, objekzioak ez diruditela bideragarri araudian aurreikusten ez diren bitartean⁵⁷.

Honekin loturik, **legezkontasun printzipioa** ere aipatu behar dugu. Izan ere, CASTRO JOVER autorearen hitzetan, gurea bezalako sistema juridiko kontinental

⁵³ *Ibidem*, 70.or.

⁵⁴ *Ibidem*, 33.or.

⁵⁵ Lehen aipatu dugun moduan, legez edo Konstituzioan aurreikusi beharko da obligazioa orokorra bada. Eta obligazioa pribatua bada, dagokion estatutuan edo kontratuan aurreikusi beharko da.

⁵⁶ CASTRO JOVER, Adoración, *Op. cit.*, 183. or.

⁵⁷ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática...*, *cit.*, 192. or.

batean, legezkotasun printzipioak oinarrizko **segurtasun juridikoa** bermatzen du. Horrek esan nahi du gero eta handiagoa izan araudiaren zehaztasuna, eskubidearen hedadura eta mugak hobeto zehaztuko direla, eta *diskrezionaltasun eremua* mugatuagoa izango dela⁵⁸.

CASTRO JOVER autoreak azaltzen du KArean argudioetatik ondorioztatzen dela, kontzientziaren arabera jardutea kontzientzia-askatasunaren parte dela. Baina jarduera horrek interes orokorra duen betebeharrak jasotzen duen arau batekin talka egiten duenean, bere egikaritzea soilik posible izango dela arauak salbuespena aurreikusten duenean⁵⁹.

CASTRO JOVER eta LLAMAZARES FERNÁNDEZ autoreentzat argi dago **kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubide** bat dela (EK 16.1), baina, **ez, aldiz, kontzientzia-eragozpena**. Modu honetan, doktrina honen arabera, kontzientzia-eragozpenak bere baitan ez dauka araudiaren babesik. Eta hauen ustez, beharrezkoa izango da salbuespen hori izateko, **araudiak eskubide hori aitortzea eta garatzea**. Hau da, arau inperatibo batek aurreikustea salbuespena eman daitekeela kontzientzia arrazoiengatik.

CAPODIFERRO CUBERO autoreak ere ildo honetan kokatzen da. Autore honen ustetan⁶⁰, **ezin da egon eskubide orokor eta behin betiko bat, edozein klasetako objektuak baliatzeko**. Eta gainera, ezin da objektu hori edozein momentu, baldintza eta obligazioaren aurrean alegatu. Izan ere, kasu askotan, kontzientziazko arrazoiengan justifikatzea ez da argudio nahikoa gainerako eskubide edo interesei gailentzeko.

Bere aburuz, kontzientzia-eragozpena **eskubide independente** gisa ulertu behar da, baina **ez eskubide autonomo** moduan. Izan ere, **EK-ko 16.1 artikuluko kontzientzia-askatasunarekin lotura du**. Baina **horrek ez du esan nahi kontzientzia-eragozpenarako oinarrizko eskubide orokor bat existitzen denik edozein egoeratan pertsonak alegatu dezakeena**⁶¹.

Ildo horretatik, LLAMAZARES FERNÁNDEZ autorearen aburuz, badago lotura logikoa kontzientzia-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenaren artean. Baina

⁵⁸ CASTRO JOVER, Adoración, Op. cit., 143. or.

⁵⁹ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática...*, cit., 182. or.

⁶⁰ CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia...*, cit. 33. or.

⁶¹ *Ibidem*, 31. or.

lotura logikoaren eta lotura juridikoaren artean ezberdindu behar da. Lehenengoaren harira, baieztatu daiteke kontzientzia-eragozpenaren eta kontzientzia-askatasunaren artean lotura estua dagoela. Baina ez, aldiz, lotura juridikoa.

Oro har adierazi daiteke, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan, doktrina eta jurisprudentziaren gehiengoak ez duela defendatzen kontzientzia-eragozpena, kontzientzia-askatasunaren edukien barruan dagoenik ikuspuntu juridikotik⁶².

Hain zuzen, Hortik dator **Konstituzioak edo legeak aitorten espresu bat egiteko beharra** dagoela ulertzea. Horrela adierazten du KAK soldaduska betetzeari eta zergak ordaintzeari egindako kontzientzia-eragozpeneko kasuen inguruan⁶³.

Atal honekin amaitzeko, LLAMAZARES FERNÁNDEZ autoreak azaltzen dituen argibide batzuk adieraziko ditugu kontzientzia-askatasuna eta kontzientzia-eragozpena zertan datzan azpimarratzeko.

Kontzientzia-askatasuna **EK-ko 16.1** artikuluan aitortua dago eta kontzientzia-eragozpena kontzientzia-askatasunarekin lotuta dago. Baina, ikuspuntu juridiko batetik, Kontzientzia-eragozpenaren **salbuespenezko izaera eta egikaritza** dela eta, beti egon beharko du arau batez aitortuta. Objektatzen den obligazioa izaera orokorrekoa bada, aitorten hori Konstituzioak edo gutxienez lege batean egon beharko da. Aldiz, obligazioa pribatua bada, aitortpena egon beharko da estatutu edo kontratu batean, kontzientzia-eragozpena alegatu nahi bada⁶⁴.

Dena den, adierazi dugun moduan, jarrera horrekin batera, bada doktrinan beste jarrera bat ere. Hauek EK 16. artikuluan aitortzen den kontzientzia-askatasunetik, kontzientzia-eragozpenarako eskubidea ondorioztatzen dute.

Jarrera bikoitz hauen aurrean, guk bat egiten dugu adierazten dutenekin EK-ko 16. artikulutik zuzenean, kontzientzia-eragozpenaren eskubidea ezin daitekeela ondorioztatu. Jarrera honentzat, **kontzientzia-askatasuna** EK-ko 16.1⁶⁵ artikuluan aitortzen den oinarritzko eskubide bat da. Aldiz, **kontzientzia-eragozpena baliatzeko, araudiaren aitortpena beharko da.**

⁶² LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática...*, cit. 177. or.

⁶³ *Ibidem*, 177. or.

⁶⁴ LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia, vol. II...*, cit., 327.or.

⁶⁵ CE 16.1. *Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.*

Posizio honetan dauden autoreen aburuz, kontzientzia-eragozpena ez litzateke oinarrizko eskubide, baizik eta **eskubide independente**. Baina ez, aldiz, **eskubide autonomo** moduan, kontzientzia-askatasunak babesten dituen konbikzioekin duen loturarengatik.

Jarrera honen isla ikus daiteke *Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. artikuluan*⁶⁶. Bertako 10.1ean aitortzen da kontzientzia-askatasuna, oinarrizko eskubide moduan. Ondoren, 10.2 artikuluan, *kontzientzia-eragozpena* aitortzen da, baino bere egikaritze arautzen dute legeen arabera⁶⁷.

B. Kontzientzia-eragozpenarekin gatazkak. Eskubideen arteko ponderazioak

Kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoaren inguruan dauden jarrerak ikusita, kontzientzia-eragozpena eskubide moduan aitortuta, kontuan hartu beharrekoa da, eskubide hori ez litzatekeela absolutu izango.

Izan ere, kontzientzia-eragozpenak aurrez aurre izango lituzke beste eskubide edo interes batzuk. Hain zuzen, kontzientzia-eragozpena eta gatazkan leudekeen bestelako interes eta eskubideen artean, ponderazio-judizioak bideratu beharko lirateke, gatazka juridikoan lehentasuna zenek edukiko luke zehazteko.

Interesekoa da azaltzea nola egin daitekeen kontzientzia-eragozpenaren eta jokoan dauden interesen arteko ponderazioa. Izan ere, ondorengo epigrafean Konstituzio Auzitegiaren 145/2015 epaia aztertzerakoan, aukera izango dugu bertan egindako ponderazio-judizioa aztertzeko.

⁶⁶ CDFUE art. 10: *Toda persona tiene derecho a la libertad de pensamiento, de conciencia y de religión. Este derecho implica la libertad de cambiar de religión o de convicciones, así como la libertad de manifestar su religión o sus convicciones individual o colectivamente, en público o en privado, a través del culto, la enseñanza, las prácticas y la observancia de los ritos. 2. Se reconoce el derecho a la objeción de conciencia de acuerdo con las leyes nacionales que regulen su ejercicio.*

<http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-Z-2010-70003> Azken kontsulta data: 2016-06-29

⁶⁷ Honen harira, datu interesgarria da CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia...*, Op cit. 69-71. or. aipatzen duena. Izan ere, Konstituzioa egiterako garaian, Senatuan bi zuzenketa aurkeztu ziren kontzientzia-eragozpena modu espresean aitortzeko. Bi zuzenketek, EKko 16.4 artikuluan kontzientzia-eragozpena barneratzeko eskatzen zuten, baina helburu ezberdinekin. Zuzenketa batek kontzientzia-eragozpenaren aitortzea eskatzen zuen edozein alorretan, ez soldaduskaren kasuan bakarrik. Beste zuzenketak, aldiz, aurreikusten zuen kontzientzia-eragozpenaren eskubidea kasu bakoitzean arautu behar izatea. Bi proposamenak ukatu egin zirens, eta azkenean, EKko 16. artikulua ez dio inolako aipamenik egiten kontzientzia-eragozpenari.

Eskubidea desegoki edo oker arautzeak kontzientzia-eragozpenaren gehiegizko egikaritzea ekar dezake. Kasu horietan, CAPODIFERRO CUBERO autorearen ustez, **ez dagoenean kontzientzia-eragozpenaren egikaritzea mugatzen duen araurik, edo dagoen arauak ez badu nahikoa mugatzen, gainerako eskubide, balore edo interesek muga bezala jardungo dute**⁶⁸.

Ildo beretik, objektorearen jokaerak negatiboki eragiten badie beste eskubide eta printzipio konstituzionalei, arrazoizkoa dirudi ordenamenduak eskubide horren egikaritzea ez ahalbidetzea. Horregatik, ahal den neurrian, **gainerakoen eskubideen artean eta objektorearen kontzientzia-askatasunaren artean oreka bat bilatu beharko da ponderazio-judizio bat eginez**⁶⁹.

CAPODIFERRO CUBERO autorearen ustez, indar gehiago eman beharko zaie objektzioarengatik **kaltetuta geratu daitezkeen eskubide, interes eta printzipioei**. Mugak kontzientzia-eragozpeneko egoera bakoitza arautzen duten arauan aurreikusten direnak izan daitezke. Ildo honetatik, muga izan daitezke EK-ko 16. artikuluan aipatzen den *ordena publikoaren* edukia zehazten duten elementuak, esaterako gainerakoen oinarritzko eskubideen errespetua, hala nola segurtasun, osasun eta moralitate publikoak⁷⁰. Hala ere, besteen eskubideak ezin dute balio objektatzeko aukera hasieratik ezeztatzeko. Baina kontzientzia-eragozpena onartu behar den ala ez erabakitzeko, kasu bakoitzean, bereziki **besteen eskubideak** hartu beharko dira kontuan⁷¹.

Autore honen ustez, **betebehar publikoei** dagokionean, arau orokorra izango da hasieratik beste **eskubideak kontzientzia-eragozpena gailenduko dutela ponderazioan**. Hau da, **ez dira onartuko beti ere, ez badu arau batek modu espresean kontzientzia-eragozpena aurreikusten**. Horren arrazoia honakoa da: betebehar publikoak interes orokorra babestea dute helburu, eta interes orokorra, ez

⁶⁸ *Ibidem*, 141. or.

⁶⁹ *Ibidem*, 146. or.

⁷⁰ CE 16.1: *Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.*

LOLR: Art. 3.1. El ejercicio de los derechos dimanantes de la libertad religiosa y de culto tiene como único límite la protección del derecho de los demás al ejercicio de sus libertades públicas y derechos fundamentales, así como la salvaguardia de la seguridad, de la salud y de la moralidad pública, elementos constitutivos del orden público protegido por la Ley en el ámbito de una sociedad democrática.

⁷¹ CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia...*, cit. 147. or.

badu legegileak kontrakoa aurreikusten behintzat, oinarritzko eskubide indibidualen gaineratik babestu behar da⁷².

Aztertu ahal izango dugun moduan, farmazeutikoak kontzientzia-eragozpena alegatu zuenean, gatazka sortarazi zuen herritarren sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidearen babesarekin.

Hain zuzen, gatazka horren aurrean sortzen den galdera zera da: zer aukera daude gatazka hori bideratzeko? Posible litzateke bi eskubideen egikaritzea bateratua bideratzea? Hori posible ez izanda, zeinek izango luke lehentasuna?

Farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena talka egiten duenean hirugarrenen eskubideekin, hasteko, gainerakoaren eskubideak oztopo eta muga moduan jardun beharko lukete farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena baliatzeko.

IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 145/2015 EPAIA⁷³

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoaren inguruan, bitan sailkatu daitezke, nagusiki, doktrina eta jurisprudenzian dauden jarrerak.

Batetik, EK-ko 16. artikulutik kontzientzia-eragozpena ondorioztatzen dutenak oinarritzko eskubide gisa, eta ondorioz, baliatzeko ez da behar legezko garapenik. Bestetik, kontsideratzen dutenak, kontzientzia-eragozpena eskubide moduan, kontzientzia-askatasunarekin lotura badu ere, juridikoki baliatzeko legez aitortua izan behar da.

Aurreko atalean, garrantzia eman diogu doktrina lantzeari. Hain zuzen ere, posizio bikoitz hori orain aztertuko dugun epaian ere islatzen da.

Batetik, lehenengo ikuspuntua jarraituko dute farmazeutikoak, hala nola, KAren epaia berak. Bestetik, bigarren ikuspuntuan kokatuko liratekeenak, Andaluziako Batzarreko Letradua, Ministerio Fiskala eta Adela Asuaren boto partikularra⁷⁴.

⁷² *Ibidem*, 149. or.

⁷³ Epai hau oso zabala eta konplexua da. Gure azterketa eremuarekin lotura zuzena duten gaiak bakarrik aztertuko ditugu.

A. Egitateak

Demandatzaileak, J.H.D jaunak, Andaluziako Farmazien Legearen arabera⁷⁵ ezarri zitzaion isuna errekurritu zuen, bide administratiboan zein bide judizialean. Bertan, farmazietan egotea derrigorrezkoak ziren gutxieneko produktu eta medikamentuak arautzen ziren. (aurrekariak 2)

Farmazeutikoak, zegokion prozedura administratibo eta judiziala amaitu ostean, babes-helegitea jarri zuen KArean aurrean, eta KAK 2015eko ekainaren 25ean eman zuen epaia⁷⁶. Farmazeutikoaren eskaera partzialki onartu zuen. Izan ere, KAK kontzientzia-eragozpena onartu zion soilik BPri dagokionez, eta ez, aldiz, preserbatiboei dagokionean.

Datozen ataletan, dugun aztergaiari begira, alderdiek landu zituzten argudioak aztertuko dira. Lehenik eta behin, Andaluziako Batzarreko Letraduak eta Ministerio Fiskalak emandako argudioak azalduko dira. Eta ondoren, farmazeutikoak emandako argudioak eta epaia ikusiko dugu egin zitzaion boto partikular batekin batera.

Gure azterketa eremua kontuan hartuta, epaiari egingo zaion azterketa, ondorengo gaietara mugatuko dugu. Batetik, gatazkan dauden eskubideak eta horien errelebantzia konstituzionala aztertuko dugu, alegia, **kontzientzia-eragozpenaren izaera** juridikoa. Bestalde, aztergai izango da, planteatu den gatazka juridikoan, tartean diren **interesen arteko ponderazio-judizioa**.

B. Andaluziako Batzarreko Letradua

1.- Gatazkan dauden eskubideen errelebantzia konstituzionala: oinarrizko eskubidea al da kontzientzia-eragozpena?

Letraduaren aburuz, farmazeutikoak errekurritutako ebazpenek **ez zuten inolako oinarrizko eskubiderik urratu**. Izan ere, bere ustez, planteatu zen gatazka ez zuen,

⁷⁴ Nahiz eta epai honen harira 3 boto partikular egon ziren, guk Adela Asua Batarrita Magistratuaren boto partikularra soilik azalduko dugu, aztergai dugun lanari begira.

⁷⁵ Hain zuzen ere *Ley 22/2007, de 18 de diciembre, de Farmacia de Andalucía*. 75.1 d) artikuluan aurreikusten da arau-hauste larritzat hartuko direla farmazietan eduki beharreko gutxiengo medikamentuak eta botikinak ez edukitzea.

⁷⁶ Aurretik, farmazeutikoari eman zitzaizkion ebazpen administratibo eta judizialean ez zitzaion arrazoia eman. Eta denek kontsideratu zuten, farmazeutikoari ezarri zitzaion isuna zuzenbidearen arabera zela.

beraz, errelebantzia konstituzionalik eta ondorioz, errekurtsoa ez onartzeko eskatu zuen. Beraz, Letratuaren aburuz, farmazeutikoak ezin alega zezakeen kontzientzia-eragozpenerako eskubiderik. (aurrekariak 7)

Izan ere, Letraduaren ustez, kontzientzia-eragozpena eskubide konstituzional autonomo bat zen, baina, ez oinarrizkoa. Eta, ezin zitekeen baliatu legegilearen aitortzen gabe. Hori horrela izanik, honakoa adierazi zuen Letraduak:

*“(...) la objeción de conciencia se configura como un **derecho constitucional autónomo, pero no fundamental**, que exige el reconocimiento del legislador para su ejercicio legítimo (interpositio legislatoris), como sucede en el art. 19.2 de la Ley Orgánica 2/2010 (RCL 2010, 534) que reconoce la objeción de conciencia a los profesionales sanitarios que intervienen directamente en la interrupción del embarazo; sin que quepa una interpretación extensiva a favor del farmacéutico en la dispensación de la píldora postcoital”.*

Letraduak, 2/2010 Lege Organikoa aipatu zuen. Gure kasuari helduz, adierazi zuen Lege Organikoaren 19.2 artikuluan abortuaren aurrean profesional sanitarioei aitortzen zen kontzientzia-eragozpena, ezin zitekeela estentsiboki zabaldu, farmazeutikoa BP saltzeaz salbuesteko.

Bestalde, farmazeutikoak demandan azaldu zuen kontzientzia-eragozpena, espreski aurreikusten zela Sevillako Farmazeutikoen Elkargoko Estatutuaren 8.5. artikuluan, nahiz Lanbide Farmazeutikoaren Etikako Kodearen 33. artikuluan ere. Hortaz, demadantzaileak adierazi zuen, farmazeutikoen kontzientzia-eragozpena ez zegoela bere lanbidetik at. (aurrekariak 3)

Letraduarentzat, adierazpen hau ez zen onargarria. Izan ere, bere aburuz, ezin zitekeen esan nahikoa zenik farmazeutikoen kontzientzia-eragozpena alegatzeko, elkargo profesionalen estatutuetan edo lanbideen kode deontologikoetan oinarritzea. Letraduaren ustez, kontzientzia-eragozpena aitortzeko, **legegilearen esku-hartzea** behar zen. (aurrekariak 7)

Hain zuzen, indarrean zegoen legeriari⁷⁷ dagokionez, Letraduak adierazi zuen Legeak ez ziela farmazeutikoei baimentzen, hainbat medikamentu, BP barne, ez saltzera,

⁷⁷ Abenduaren 18ko 22/2007 Legea, Andaluzieko farmaziana. *Ley Ley 22/2007, de 18 de diciembre, de Farmacia de Andalucía.*

kontzientzia arrazoiak alegatuz. Izan ere, Legeak bi arrazoi bakarrik aurreikusten zituen farmazeutikoek medikamentuak ez saltzeko: medikamentuak indarrean zegoen araudiaren kontra eskatzea, edo, bestalde, medikamentu hori eskatzea helburu teraupetikoa ez zen beste baterako. Ildo honetatik, Letraduak adierazi zuen, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena ez zenez aurreikusten bi salbuespen horietan, farmazeutikoak ezin zezakeela alegatu.

Gainera, Letratuak azaldu zuen, legearen arabera, BP **larrialdiko antisorgailu** moduan zegoela kalifikatuta, haurdunaldiaren prebentzioa suposatzen zuen heinean. Ildo honetatik, adierazi zuen doktrinan ez zegoela adostasunik BPren efektu abortiboetaz buruz. Baina, esan zitekeena zen, pilulak bere ondorioak sortzen zituela ernalketaren aurretik. Kasu horretan, ernalketarik eman ez bazen, BPren eraginez, KAren doktrina⁷⁸ kontuan hartuta, *aurre-embrioiak* lirarteke, eta ez lukete babes juridikorik izango. (aurrekariak 7)

2. Ponderazioa judizioa gainerako eskubideekin

Letraduak alegatu zuen, farmazeutikoak alegatutako kontzientzia-eragozpenak talka egiten zuela hirugarrengoen eskubideekin. Hain zuzen ere, emakumeen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidearekin. Honen inguruan, Letraduak adierazi zuen farmazeutikoak errekurritu zuen epaia modu egokian arrazoitua zegoela, interesen ponderazio egoki bat egin zuelako.

Izan ere, Letraduak adierazi zuen, emakumeen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidearen inguruan, EK-ko 15. artikulua bermatzen zuen **osotasun fisiko eta psikikoaren eskubidearen aldarrikapena** zela, eta lotura zuela EK-ko 43. artikuluan aurreikusten zen **osasun-eskubidearekin**. Hain zuzen ere, **sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubideak, barnebiltzen zuela**, ordenamendu juridikoak ezartzen zituen **osasun prestazioak eta prestazio farmazeutikoak jasotzeko eskubidea**. Horrez gain, Letraduaren ustez, eskubide horrek barneratzen zuen haurdunaldia borondatez eteteko osasun- eta farmazia-prestazioak izatea, eta baita Espainian baimendutako medikamentu antisorgailuak lortzeko aukera izatea ere.

Letraduaren aburuz, **emakume batek BP behar bazuen, bere interesa gailendu behar zen farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenaren aurrean**.

⁷⁸ Horren oinarria AKE 116/1999 (RTC 1999, 166) OJ 9 izanik.

Letraduak, farmazeutikoak errekurritu zituen epaiak modu egokian arrazoituta zeudela funtsatzeko, EGEA-k 2001eko urriaren 2an emandako *Pichon eta Sajous Frantziaren kontrako* ebazpenean oinarritu zuen bere argudiaketa⁷⁹.

Kasu hauek bazuten nolabaiteko antzekotasuna epai honekin, izan ere, EGEA-k ebazpena eman zuen pilula antisorgailuei kontzientzia-eragozpenari buruz. Ebazpen horretan⁸⁰, adierazi zuen ulertu zitekeela pilula antisorgailuak saltzeak farmazeutikoen kontzientzia-askatasuna mugatzen zuela. Baina, EGEA-k muga hori arrazoizkoa zela kontsideratu zuen, izan ere, emakumearen eskubideak bermatzeko ezinbestekoa zela kontsideratu baitzuen. (Aurrekariak 7)

C. Ministerio Fiskala (Aurrekariak 8)

1.- Gatazkan dauden eskubideen errelebantzia konstituzionala: oinarritzko eskubide al da kontzientzia-eragozpena?

Ministerio Fiskala ez zetorren bat gai honen inguruan farmazeutikoaren posizioarekin⁸¹. Hain zuzen, aztertuko dugun moduan, farmazeutikoak kontsideratu zuen BPa *abortiboa* zela, eta kasu horretan, EK-ko bizitza-eskubidea urratuko lukeela. Horregatik, BPk farmazian edukitzeko legezko mandatuak, bere konbikzioak urratzen zituela kontsideratu zuen.

Hain zuzen, farmazeutikoak, BP abortiboa kontsideratu zuen giza-bizitza deusezten zuelako eta enbrioaren habiaraketa⁸² garalazten zuelako. Farmazeutikoarentzat, BP abortibotzat zela ulertzea, EKren 15. artikuluan aitortzen zen bizitza-eskubidea urratzen zuen. Hori dela eta, errekurtsio-jartzailearentzat, BP farmazian edukitzeko legezko betebeharra bateraezina zen bere konbikzio etikoekin. Horregatik, azaldu zuen BP medikamentua ez edukitzea, eta ondorioz, ez saltzea, zuen kontzientzia-eragozpenerako eskubideak babesten zuela. Izan ere, farmazeutikoarentzat,

⁷⁹ http://www2.womenslinkworldwide.org/wlw/new.php?modo=observatorio&id_decision=267 Azken kontsulta data: 2016-06-29.

⁸⁰ Bi farmazeutikoek GEEAren 9.artikuluua alegatu zuten. Artikulu horretan oinarrituz, azaldu zuten erlijioa adierazteko eskubideak, farmazeutiko gisa jarduten zutenean antisorgailuak ez saltzeko eskubidea barnebiltzen zuela. Baina EGEAk isun bat eta kalteak ordaintzera zigortu zituen.

⁸¹ Lehenik eta behin, Ministerio Fiskalak eskatu zuen errekurtsioa tramitera ez onartzeko epeaz kanpo aurkezteagatik. Ez onartzekotan, subsidiarioki errekurtsioa ez onartzeko eskatu zuen.

⁸² *Anidación*: habiaraketa. Elhuyar hiztegian kontsultatuta.

kontzientzia-eragozpena EK-ko 16.1 artikuluan aurreikusten zen askatasun ideologikoaren parte zelako.

Ministerio Fiskala ez zettorren bat errekurso-jartzailearen argudioekin. Izan ere, bere ustez, Konstituzioak soilik aurreikusten zituen soldaduskaren kontzientzia-eragozpena (EK 30.2), eta informazioaren profesionalen kontzientzia-klausula (EK 20.1). Ondorioz, ez zuen kontsideratu farmazeutikoak kontzientzia-eragozpenerako eskubidea zuenik.

Ministerio Fiskalak, KAK kontzientzia-eragozpenari buruz zuen doktrinara joz, azaldu zuen, farmazeutikoa farmazia baten titular izanda, behartua zegoela legeak aurreikusten zituen zenbait medikamentu eta produktu sanitario edukitzea. Eta obligazio hura ez betetzeak, arau-hauste administratibo larri bat suposatzen zuela.

2.- Ponderazio judizioa gainerako eskubideekin

Ministerio Fiskalaren ustetan, demandatzailearen askatasun ideologikoa edo sinesmenak mugatzea, kasu honetan zilegi kontsideratu behar zen. Izan ere, Fiskalak beharrezkotzat jo zuen farmazeutikoaren sinesteak mugatzea, **osasun indibiduala eta kolektiboa babesteko**.

Honek ere, adierazi zuen BParen izaera ofiziala **larrialdiko antisorgailuarena** zela, hala aurreikusi baitzuen, Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak, 2011ko martxoaren 5eko ebazpenean. Honen harira, Ministerio Fiskalak adierazi zuen, farmazeutikoak ezin zuela oinarritu bere kontzientzia-eragozpenerako eskubidea BPren ustezko efektu abortiboetan.

Fiskalak ere alegatu zuen EGEA-ren kasua, hain zuzen ere, 2001eko *Pichon eta Sajous Frantziaren kontrakoa*. EGEAk ulertu zuen GEEH-aren⁸³ 9.artikuluak⁸⁴ ez zuela beti bermatzen eremu publikoan sinesmen propioekin jardutea. Izan ere, eskubide horiek mugak zituelako.

⁸³ http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/dudh.html Azken kontsulta data: 2015-06-29.

⁸⁴ CEDH art. 9.1: *Toda persona tiene derecho a la libertad de pensamiento, de conciencia y de religión; este derecho implica la libertad de cambiar de religión o de convicciones, así como la libertad de manifestar su religión, o sus convicciones individual o colectivamente, en público o en privado, por medio del culto, la enseñanza, las prácticas y la observancia de los ritos.*

Doktrina honetan oinarrituta, **proporzionala** kontsideratu zuen farmaziek BP edukitzera behartzen zituen legezko obligazioa. Hain zuzen ere, beharrezkoa zelako **emakumearen eskubideak** babesteko.

Horrez gain, Fiskalak adierazi zuen, legezko obligazioekiko kontzientzia-eragozpena alegatu ahal izateko, legegilearen aitortpena behar zela. Hain zuzen ere, kasu honetan, aurreikusten ez zena.

Ondorioz, Fiskalaren ustez, demandatzaileari jarritako isunak **ez zuen askatasun ideologikoaren eta erlijiosoaren eskubidea urratu** (EK 16).

D. Farmazeutiko-demandatzailea

1.- Gatazkan dauden eskubideen errelebantzia konstituzionala: oinarrizko eskubide al da kontzientzia-eragozpena?

Jadanik aurreratu dugun moduan, farmazeutikoak argudiatu zuen errekurritu zituen ebazpenek, isuna jarri ziotenak alegia, bere **kontzientzia-eragozpenerako eskubidea urratu zutela, EKren 16.1 artikuluan aitortutako adierazpen ideologikoan oinarrituta**. Izan ere, konbikzio etiko horiek BP saltzea eragozten zioten, bere **efektu abortiboak** zirela eta (aurrekariak 3).

Bestalde, farmazeutikoak demandan adierazi zuen, kontzientzia-eragozpenerako eskubidea espresuki aurreikusten zela **Sevillako Farmazeutikoen Elkargoaren Estatutuko 8.5 artikuluan, eta baita Lanbide Farmazeutikoko etika- eta deontologia-farmazeutikoko Kodearen 28 eta 33 artikuluetan ere**.

Arau horietan oinarrituta, demandatzaileak azaldu zuen, farmazeutikoen kontzientzia-eragozpena ez zegoela bere jarduera profesionaletik at, lanbidea arautzen zuten estatutuen arabera. BP saltzeko legezko betebeharraren aurrean, argudiatu zuen gatazka larri bat planteatzen zitzaiola: legezkontasunetik at jardun, edo bere kontziaren aurka jokatu.

Bestalde, farmazeutikoak adierazi zuen, BP ez saltzearen arrazoa, bizitza-eskubidearen inguruan zituen konbikzioek galarazten ziotela. Horren harira, azaldu zuen, konbikzio horiek BP saltzea eragozten ziotela, bere iritziz, pilulak ondorio abortiboak zituelako.

Farmazeutikoak ez zuen inolako adierazpenik egin gainerako eskubideen inguruan.

E. Epaia

1.- Gatazkan dauden eskubideen erreibantzia konstituzionala: oinarritzko eskubide al da kontzientzia-eragozpena? Epaiaren OJ 4.

Gai honen inguruan, KAK ez zituen onartu Andaluziako Batzarreko Letraduaren eta Ministerio Fiskalaren argudioak. Farmazeutikoarena, ordea, partzialki ontzat eman zuen: BPri dagokionez, onartu zion kontzientzia-eragozpena, eta ez, aldiz, preserbatiboei dagokionean⁸⁵.

Demandatzaileak adierazi zuen, errekurritu zituen ebazpenek bere kontzientzia-eragozpenarako eskubidea urratu ziotela. Izan ere, azaldu zuen, BP ez saltzean, bizitza-eskubidearen inguruan zituen konbikzio-etikoekin bat jardun zuela. Hain zuzen ere, konbikzio horiek BP edukitzea eta saltzea galarazten zioten, bere ustez, pilularen ondorio abortiboak posible zirelako. Pilularen ondorio abortiboek, bizitza-eskubidearen inguruan zuen ikuskeran gatazka eragiten ziola.

Zentzu horretan, KAK azaldu zuen ordura arte, ez zuela erabakirik eman farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenaren inguruan. Zehazki, gatazka sortzen zenean gutxiengo medikamentuak edukitzea derrigortzen zituen arauaren eta farmazeutikoen kontzientzia-eragozpenaren artean (OJ 4).

Honela, Auzitegiak azaldu zuen kontzientzia-eragozpenaren inguruan, abortuaren epaian esandakoa: *“existe y puede ser ejercido con independencia de que se haya dictado o no tal regulación. La objeción de conciencia forma parte del contenido del derecho fundamental a la libertad ideológica y religiosa reconocido en el art. 16.1 CE y, como ha indicado este Tribunal en diversas ocasiones, la*

⁸⁵ Preserbatiboei dagokionez, KAK ez zuen farmazeutikoaren pretentsioa onartu. Izan ere, kontsideratu baitzuen *nasciturusaren* bizitza ez zegoela jokoan. Hala ere, Andrés Ollero Tassara Magistratuaren boto partikularrak, adierazi zuen KAK farmazeutikoa, BP saltzeaz gain, preserbatiboak saltzeaz ere salbuetsi behar zuela. Hots, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aitortu behar zuela BP nahiz preserbatiboekiko.

Constitución es directamente aplicable, especialmente en materia de derechos fundamentales”⁸⁶ (OJ 4).

Hasteko, epaiaren azterketa bideratu zen, erabakitzera ea 53/1985 epaiko argudiaketa aplikagarri zitzaion BPren kasu honi. Lehenik eta behin, aztertu zuen BP ez edukitzeko alegatzen ziren arrazoiek antzekotasunik ba ote zuten abortuaren kasuan zeudenekin.

Gai honi buruz, KAK azaldu zuen bazekiela ez zegoela adostasunik doktrinan, BP ondorio abortiboen inguruan. Ildo horretatik, adierazi zuen, doktrinan bazeudela autore batzuk kontsideratzen zutenak, BPk ondorio abortiboak zituela. Aldi berean, adierazi zuen ondorio horiei buruz, KAK bazuela “*zalantza funtsatua*”⁸⁷ edo “duda razonable” delakoa.

Hain zuzen, *zalantza funtsatu* hori frogatutzat jo zuenean, KAK kontsideratu zuen, BPren atzean, abortuarekin lotutako kasu bat zegoela. Eta, hortik abiatuta, kontsideratu zuen, 53/1985 epaian jasotako argudiaketa bera, zuzenean aplikagarri zela. Hortaz, farmazeutikoari **kontzientzia-eragozpena aitortu zion**, EK-ko 16. artikuluan bakarrik funtsatuta.

Zalantza funtsatu horretan oinarrituta, KAK ulertu zuen, gatazka horren atzean **errelebantzia konstituzionala** zuen gatazka bat zegoela.

Beraz, Auzitegiak 53/1985 epaiarekin antzekotasuna bazuela kontsideratu zuen eta erabaki zuen epai hori kasu honetan aplikagarria zela⁸⁸. Horren ondorioz, aukera eman zen **osasun- profesionalek abortuarekiko zuten kontzientzia-eragozpenerako eskubidea, farmazeutikoaren kasura luzatzea.**

Hain zuzen ere, KAK adierazi zuen bi kasutan zegoen interesa bera zela: *nasciturusa*. KAK azaldu zuen, kasu honetan ere bazegoela kontzientzia-eragozpenerako eskubide hori.

⁸⁶ Honela mintzatu zen KA 53/1985 Epaian (RTC 1985, 53). Hain zuzen ere, abortuaren legerari buruz konstituzio kontraktotasun helegite bat ezarri zitzaion. Epai horretan, KAK osasun-profesionalei abortuak praktikaterakoan zuten kontzientzia-eragozpena aitortu zien.

⁸⁷ Zalantza funtsatua erabili dut **duda razonable** esateko.

⁸⁸ (...) *hemos de colegir que los aspectos determinantes del singular reconocimiento de la objeción de conciencia que fijamos en la STC 53/1985, FJ 14, también concurren, en los términos indicados, cuando la referida objeción se proyecta sobre el deber de dispensación de la denominada <<píldora del día después>> por parte de los farmacéuticos*” (OJ 4).

Hala ere, abortuaren epaiari dagokionean, KAK adierazi zuen 53/1985 epaian **kontzientzia-eragozpenaren aitortpen berezia**⁸⁹ izan zela. Ondorioz, “aitortpen berezi hori” ezin zitekeela edozein modutan interpretatu.

Laburbilduz, KAK 4. OJ-an kontsideratu zuen, farmazeutikoak kontzientzia-eragozpenerako eskubidea zuela. Aldi berean, jarri zitzaizkion isunak kontzientzia-eragozpena urratu ziotela adierazi zuen.

Hain zuzen ere, honakoa adierazi zuen KAK 5. OJ-an, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenerako eskubidea urratu zitzaiola azaltzeko:

“(…) hemos de proclamar que la sanción impuesta por carecer de las existencias mínimas de la conocida como «píldora del día después» vulnera el derecho demandante a la libertad ideológica garantizado por el art. 16.1 CE”.

Beraz, KAK farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aitortzeko, **EK-ko 16.1 artikulua askatasun ideologikoan oinarritu zen.**

Lan honen aurreko atalean, doktrinaren sistematizazioa egin dugu. Ildo berean, adierazi dugu, epai honetan doktrina horren isla ikusi daitekeela. Beraz, aurretik doktrinan egin dugun sailkapenean, KAK-en epai hau, EK-ko 16.1 artikulutik kontzientzia-eragozpena ondorioztatzen dutenen taldean sailkatuko genuke.

Objektore gisa inskribatuta egoteari buruz, KAK gogorarazi zuen farmazeutikoa kontzientzia-objektore gisa inskribatuta zegoela Sevillako Farmazeutikoen Elkargo Ofizialean. Legeriari dagokionez, KAK aipatu zuen Andaluziako Autonomia Erkidegoan, ez zegoela farmazeutikoen kontzientzia-eragozpenari buruzko lege mailako araudirik. Hala ere, Sevillako Farmazeutikoen Elkargoko Estatutuaren 8.5 artikulua kontuan hartu zuen. Estatutu honen arabera, farmazeutikoen kontzientzia-eragozpena espresuki aurreikusten zen⁹⁰. Ondorioz, Auzitegiak adierazi zuen, Estatutu horrek ez

⁸⁹ Esamolde hau erabili dut *Singular reconocimiento de la objeción de conciencia* adierazteko.

⁹⁰ *Son derechos básicos de los farmacéuticos colegiados los siguientes: derecho a la objeción de conciencia en la práctica de su actividad profesional. El colegiado al que se le impidiese o perturbase el ejercicio de este derecho conforme a los postulados de la ética y deontología profesionales se le amparará por el Colegio ante las instancias correspondientes.*

zeukala garrantziarik, baina bertatik ondorioztatu zuen, demandatzaileak eskubide zilegi bat egikaritzen ari zela uste zuela⁹¹.

2.- Ponderazio judizioa gainerako eskubideekin (OJ 5)

Auzitegiak, behin adierazi ondoren farmazeutikoari kontzientzia-eragozpena urratu zitzaioa, beste interes batzuk jokoan zeudenez, interesen arteko ponderazio-judizio bat egin behar zela azaldu zuen. Farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpenaz gain, jokoan zegoen interesa, **emakumearen sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea** zen.

Honen inguruan, Auzitegiak adierazi zuen, farmazeutikoari zigorra ez zitzaioa ezarri hirugarren bati medikamentua ez saltzeagatik, baizik eta araudian ezarritako BPen gutxiengoa ez edukitzeagatik. Hain zuzen ere, KAK ondorioztatu zuen, **ez zela inolako kalterik sortu hirugarrengoen eskubideetan**.

Ildo berean, KAK adierazi zuen inork ez zuela frogatu, BP lortzeko zailtasunak egon zirenik. Beste modu batera esanda, inork ez zuela frogatu emakumearen eskubideak kaltetu zirela. Zentzu horretan, Auzitegiak adierazi zuen demandatzailearen farmazia Sevillako hiriaren erdigunean zegoenez, beste farmazia batzuk oso gertu zeudela (OJ 5).

Honela, KAK adierazi zuen farmazeutikoaren ardura zela herritarrei zerbitzua ematea. Baina, kasu zehatza aztertuta, eta bertan ematen ziren inguruabarrak kontuan izanda, kontsideratu zuen kasu honetan **emakumearen sexu- eta ugaltze-eskubideak ez zirela urratu**.

Hain zuzen ere, honela adierazi zuen KAK ez zirela emakumearen eskubideak urratu:

“(...) hemos de añadir que en las actuaciones no figura dato alguno a través del cual se infiera el riesgo de que la dispensación «de la píldora del día después» se viera

⁹¹ Ley 10/2003, de 6 de noviembre, reguladora de los Colegios Profesionales de Andalucía. Horrela dio Andaluziako 10/2003 Legearen 22.II artikulua: *Si los estatutos no se ajustaran a la legalidad vigente, o presentaran defectos formales, se ordenará su devolución a la corporación profesional para la correspondiente subsanación, de acuerdo con el procedimiento que se establezca reglamentariamente.* Honekin KAK ondorioztatu zuen, Administrazioak ez zituen aurkatu, farmazeutikoak uste zuela eskubide bat egikaritzen ari zela.

obstaculizada, pues amén de que la farmacia regentada por el demandante se ubica en el centro urbano de la ciudad de Sevilla, dato este del que se deduce la disponibilidad de otras oficinas de farmacia relativamente cercanas, ninguna otra circunstancia permite colegir que el derecho de la mujer a acceder a los medicamentos anticonceptivos autorizados por el ordenamiento jurídico vigente fuera puesto en peligro” (OJ 5).

D. Adela Asua Magistratuaren boto partikularra

KAren epai hau gatazkatsua izan zen. Horren adierazgarri dira, epaiari eman zitzaizkion hiru boto partikularrak. Horien artean, Adela Asua Batarrita Magistratuaren boto partikularra aztertuko dugu, lantzen ari garen argudioei begira interes berezia duelako.

1.- Gatazkan dauden eskubideen errelebantzia konstituzionala: oinarrizko eskubide al da kontzientzia-eragozpena?

Adela Asuak epaiaren hainbat aspektu aztertu zituen. Lehenik eta behin, KAren premisa: *kontzientzia-eragozpena EK-ko 16.1 artikuluaaren askatasun ideologikoaren oinarrizko eskubidearen eduki zela.*

Baieztapen hori Adela Asuaren ustez okerra zen. Izan ere, epaiak hori baieztatzeko eman zuen argudio bakarra KAren 53/1985 (OJ 14) epaiarekin ezarri zuen antzekotasuna izan zen⁹². Adela Asuak ez zuen egokia kontsideratu, bertatik ondorioztatzea kontzientzia-eragozpena oinarrizko eskubide gisa.

Izan ere, KAK, 53/1985 epaiaren baieztapen hori *obiter dictum* gisa eman zuen. Horregatik, Magistratuaren ustez, ezin zuen bertatik soilik adierazi, kontzientzia-eragozpena EKko 16.1 artikuluaaren parte zela⁹³. Izan ere, ondoren KAK emandako

⁹² Aurretik adierazi dugun moduan, bertan esan zen «*la objeción de conciencia forma parte del contenido del derecho fundamental a la libertad ideológica y religiosa reconocido en el art. 16.1 de la Constitución y, como ha indicado este Tribunal en diversas ocasiones, la Constitución es directamente aplicable, especialmente en materia de derechos fundamentales*

⁹³ Honen harira, CASTRO JOVER, *Adoración* aipatu behar. Bere ustez, KA-k baieztapen hori egin zuenean, *obiter dictum* gisa egin zuenez, ezin daiteke argudio horretatik ondorioztatu kontzientzia-eragozpenerako eskubidea dagoenik. CASTRO JOVER, *Adoración*, Op. cit., 185. or.

epaietatik ondorioztatu zitekeen, kontzientzia-eragozpena aitortzeko Konstituzioak edo lege batek aitortu beharra zuela⁹⁴.

Bestetik, Adela Asuaren ustez, BPren ondorio abortiboen inguruan **doktrina zientifikoan adostasun falta dagoela esatea**, balorazio subjektibo bat zen. Bere iritziz, KAK ez zuen horri buruzko froga bat ere eman. Izan ere, baieztapen hori ukatzen zuen Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak <<**larrialdiko antisorgailu**>> gisa kalifikatzean.

Hain zuzen ere, honakoa adierazi zuen Magistratuak:

*“Esa pretendida <<falta de unanimidad>> constituye una **apreciación científica enteramente libre y subjetiva** de la Sentencia, no basada en prueba pericial alguna, y que resulta desmentida por la **consideración de <<medicamento anticonceptivo de emergencia>>** que la Agencia Española del Medicamento le ha asignado>>”.*

Gainera, Adela Asuaren ustez, KAK ez zuen aintzat hartu KAREN 116/1999⁹⁵ epaia. KA 116/1999 epaiaren 9. OJ-an, Auzitegiak ulertu zuen aurre-enbrioak ezin zitezkeela *nasciturus* kontsideratu. Magistratuaren ustez, BPren inguruan interpretaziorik zabalena eginda ere, alegia, aurre-enbrioi kontsideratuta *farmazeutikoak* alegatzen duen “*bizitzarekiko ikuspegiak*” ez luke *nasciturus* izaera juridikorik edukiko.

Horrez gain, Adela Asuak adierazi zuen epaiak ez ziola inongo erreferentziarik egin nazioarteko zuzenbideari eta zuzenbide komunitarioari. Eta EK-ko 10.2 artikulua araberak, horiek kontuan hartzeko obligazioa zegoela. Magistratuak EBOEGaren 10.2 artikuluari⁹⁶ egin zion erreferentzia. Artikulu horrek kontzientzia-eragozpena aitortzen zuela adierazi zuen, baina bere egikaritzea *lege nazionalek* garatuko

⁹⁴ Horretarako Adela Asuak AKE 160/1987 OJ 3 azaltzen du. Bertan, KAK esan zuen <<kontzientzia-eragozpena Konstituzioak 30.2 artikuluan aurreikusitako eskubide konstituzional bat dela baina 16. artikuluaekin lotzeak ez duela esan nahi oinarritzeko kalifikatzea. Eta Konstituzioak aitortu gabe bere egikaritzea ezinezkoa litzatekeela. Ezta EK 16. artikuluan bakarrik oinarrituta ere, izan ere hori bakarrik ez litzateke nahikoa herritarrek betebeharrak konstituzionalak edo konstituzio azpikoak egiteaz askatzeko. Izan ere, horrek agindu juridikoak erlatibizatzearen arriskua ekarriko luke.

⁹⁵ KAE 1999-06-17 (RTC 1999, 116)

⁹⁶ <http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-Z-2010-70003> Azken kontsulta data: 2016-06-29.

zutela⁹⁷. Magistratuaren ustez, horrek adierazten zuen, kontzientzia arrazoiengatik objektatzeko eskubidea, legegileak aurreikusi beharko lukeela⁹⁸.

Bestalde, Magistratuarentzat deigarria zirudien epaiak kontuan ez hartzea *Pichon eta Sajous Frantziaren kontrako* epaia. Gainera, Andaluziako Batzarreko Letraduak zein Ministerio Fiskalak alegatu zuten epai hori.

Adela Asuaren ustez, epaia beste premisa oker batetik abiatu zen: EK 16.1 artikulua kontzientzia arrazoiengatik objektatzeko baimena ematen zuela, legegileak kontzientzia-eragozpen konkretuaren aitortzearen egin gabe.

Ildo honetatik, adierazi zuen epaiak ez ziola inolako erreferentziarik egiten KAren azken hamarkadetako doktrinari. Izan ere, doktrina horren arabera, kontzientzia-eragozpenak *interpositio legislatoris* behar zuen eskubidea aitortzeko⁹⁹.

Bestalde, Magistratuak adierazi zuen, uztailaren 26ko 29/2006 Legeak¹⁰⁰, farmazutikoak derrigortzen zituela legez eta erregelamenduz aurreikusten ziren medikamentu eta produktu sanitarioak saltzea. Hain zuzen ere, Legearen 84.3 artikulua adierazten zuen, farmaziak behartuta zeudela Osasuneko Sistema Nazionalak eta partikularrek eskatzen zizkieten medikamentuak ematera. Ildo horretatik, Magistratuak zioen moduan, **legeak ez zuen inolako salbuespenik aurreikusten kontzientzia arrazoiengatik.**

Gainera, honen harira, Magistratuak KAren 2013ko ekainaren 6ko epaia¹⁰¹ aipatu zuen. Bertan, KAK konstituzioaren aurkakotzat jo zuen foru-arau bat. Arau horretan, farmazutikoaren esku uzten zen, medikamentuak emateko edo ez emateko aukera, 25/1990 Legearen¹⁰² 88.1 d) artikulua kontraesanez.

Adela Asuak ondorioztatu zuen legegileak **ez zuela aurreikusi, medikamentuak emateko obligazioa salbuetsita geratu zitekeenik inongo**

⁹⁷ CDFUE art. 10.2: *se reconoce el derecho a la objeción de conciencia de acuerdo con las leyes nacionales que regulen su ejercicio.*

⁹⁸ Magistratuaren aburuz, ez bada Konstituzioan edo legeetan aurreikusi, herritarrek ezin dute kontzientzia maila gorenean jarri eta nahi dutenean, nahi duten moduan objektatu.

⁹⁹ Magistratuak KAren hainbat Epaietatik ondorioztatzen du *interpositio legislatoris* behar dela kontzientzia-eragozpena aitortzeko: AKE 1994-11-28 (RTDC 1994, 321) OJ 4; KAE 1996-03-28 (RTC 1996, 55) OJ 5; KAE 1987-10-27 (RTC 1987, 161) OJ 3; AKE 1987-10-27 (RTC 1987, 160) OJ 4.

¹⁰⁰ Ley 29/2006, de 26 de julio, de garantías y uso racional de los medicamentos y productos sanitarios.

¹⁰¹ KAE 2013-06-06 (RTC 2013, 137)

¹⁰² http://noticias.juridicas.com/base_datos/Derogadas/r11-l25-1990.html

Ley Ley 25/1990, de 20 de diciembre, del Medicamento. Azken kontsulta data: 2016-06-29.

supostutan. Modu honetan, ez zen onargarria Legeak ezarritako obligazioak ez betetzea, eta Magistratuaren ustez farmazeutikoak ez zuten zigorrik gabe geratu behar.

Bestetik, epaiak farmazeutikoa Sevillako Farmazeutikoen Elkargoko eta Lanbide Farmazeutikoaren Estatutuetan, objektore gisa inskribatuta zegoela adierazi zuen. Magistratuaren aburuz, KAk Estatutuak konstituzio arauen mailan jarri zituen. Ildo horretatik, magistratuaren arabera, KAk argudio hori erabili zuen, nahi zuen erabakia ondorioztatzeko.

Modu honetan, Magistratuak adierazi zuen kontzientzia-eragozpena Elkargoko Estatutuetan oinarritzea, *penagarria* zela. Izan ere, **elkargoko estatutuek ezin zituztela ex novo legeak errespetatu gabe oinarritzko eskubideak sortu**. Aldi berean, adierazi zuen elkargoetako estatutuek Konstituzioa, legeak eta ordenamendu juridikoa errespetatu behar zituztela. Baina kasu honetan, ez zela aurreikusten ez estatutaun, ezta Andaluziako AEn ere, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena¹⁰³.

Adela Asuaren ustez, epaiak elkargoen estatutuei garrantzia berezia emateak eta horietan oinarritzeak, argudioek ez zutela **oinarri konstituzionalik** erakusten zuten. Magistratuaren iritziz, argudio horrek agerian jarri zuen, KA ezin zitekeela EKko 16.1 artikuluan nahiz Andaluziako legeetan oinarritu, farmazeutikoaren jokaera justifikatzeko.

Horrez gain, abenduaren 18ko 22/2007 Legea¹⁰⁴ aipatu zuen. Legearen 22.1.b) artikulua¹⁰⁵ arabera, farmazeutikoak medikamentuak ez emateko aukera soilik bi kasutan zituen: helburua ez zenean terapeutikoa, edo indarrean zegoen araudia errespetatu gabe eskatzen zirenean¹⁰⁶. Magistratuak adierazi zuen, demandatzaileak bere borondatez hautsi zuela gutxiengo medikamentuak edukitzeko obligazioa.

Bestalde, KAk 5. OJ-n adierazi zuen, zehapen administratiboa ez zitzaiola jarri farmazeutikoari BP *ez saltzeagatik*. Hain zuzen ere, legeak ezarritako medikamentu eta produktu gutxiengoarekin ez betetzeagatik jarri zitzaiola.

¹⁰³ Dagoen araudi bakarra Andaluziako apirilaren 30eko 104/2001 Dekretua da. Araudi horrek Andaluziako farmazietan eduki beharreko gutxiengo medikamentuak aurreikusten ditu, eta **BP aurreikusten da bertan. Baina ez du inolako salbuespenik aurreikusten kontzientzia arrazoiengatik.**

¹⁰⁴ Ley 22/2007, de 18 de diciembre, de Farmacia de Andalucía.

¹⁰⁵ *Los farmacéuticos, en relación con el ejercicio profesional en la oficina de farmacia, tienen los siguientes derechos: Negarse a dispensar medicamentos cuando no sean solicitados de acuerdo con las normas vigentes o cuando sea evidente una finalidad extraterapéutica de los mismos.*

¹⁰⁶ Legearen 22.2.d) artikulua¹⁰⁶ arabera, farmaziek gutxiengo medikamentu eta osasun-produktuak edukitzeko beharra zuten indarrean zegoen araudiarekin bat etorritik.

Epaiaren ustez, kasu zehatz honetan, ez ziren emakumeen eskubiderik urratu. Adela Asuaren ustez, KAren argudio hori, guztiz funtsatu gabea zen. Hain zuzen ere, Magistratuaren ustez, kasu honetan **ez zen inolako eskubiderik urratu**. Izan ere, bere ustez, **ez zegoen gatazkarik farmazia batek gutxiengo medikamentuak edukitzeko beharraren eta farmazeutikoak argudiatzen zuen bizitza-eskubidearen artean**.

Magistratuaren iritziz, argudio horiek ez ziren nahikoak farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aitortzeko. Izan ere, gutxiengo medikamentuak ez edukitzeak, ez saltzeko ondorioa zekarren berarekin. Ondorioz, **farmazia horretan lanean egon zitezkeen gainerako langileei BP saltzeko ezintasuna** ekartzen zien.

2.- Ponderazio judizioa gainerako eskubideekin

Epaiak adierazi zuen, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena urratu zela. Baina, hala ere, beste interes batzuen urrapena egon zen aztertu beharra zegoela. Hain zuzen ere, **emakumearen sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea**.

Adela Asuaren aburuz, ez zen inolaz ere onargarri izan KAK gauzatu zuen interesen arteko **ponderazioa**.

Epaiari adierazi zen, Sevillako farmazia hiriaren erdigunean zegoela. Beraz, beste farmazia batzuk zeudela BP salduko zutenak. Adela Asuaren ustez, hori adieraziz, KAK frogatu nahi zuen emakumeari ez zitzaiola inolako kalterik sortarazi. Baina Magistratuaren aburuz, KAK baieztapen horiek egin zituen inongo datu objektiborik eman gabe: zenbat farmazia zeuden demandatzailearen farmaziaren ondoan, zein distantziatara zeuden gainerako farmaziak etab. Alegia, Magistratuaren iritziz, KA konformatu egin zen adierazi zuenean, demandatzailearen farmazia Sevillako hiriaren erdigunean zegoenez, farmazia asko gertu zituela.

Magistratuaren ustez, KAK interesen arteko ponderazioa egiterakoan, epaiak ez zien behar bezalako garrantzia eman **emakumearen bizitza-eskubideari, osotasun fisiko eta moralerako eskubideari, nahiz osasun-eskubideari ere** (EK 15 eta 43).

Horrez gain, Magistratuaren aburuz, ez zituen kontuan hartu Espainiar ordenamenduan medikamentuak saltzeari buruzko araudia, ezta farmazien izaera juridikoa ere¹⁰⁷.

Magistratuak boto partikularra amaitu zuen adieraziz, epaiak asaldura sortzen ziola **argudioak mugatuak eta logikarik gabekoak** zirelako. Honakoa adierazi zuen, zehazki, Magistratuak:

*“Una vez expuestas las anteriores razones, se entenderá **el estupor** que me causa la **limitada argumentación** de la Sentencia de la mayoría, construida sobre **apriorismos, sonoros silencios y omisiones**, junto con sorprendentes saltos de la lógica argumentativa (...)”.*

Gainera, adierazi zuen KAK ez ziola EGEA-ri nahiz doktrina konstituzionalari ere, inolako erreferentziarik egin. Magistratuak adierazi zuen jurisprudentzia hori prozesuan parte hartu zuten aldeek argudiatzeaz gain, KAREN Osoko Bilkura osatzen zutenetik batzuk ere aipatu zutela. Eta ondorioz, epaia eman zuten Magistratuak kontziente zirela jurisprudentzia horiek ez zirela kontuan hartu. Magistratuaren aburuz, epai honek **doktrina konstituzionalaren izugarritzko aldaketa** dakar. Adela Asuaren ustez, **aldaketa drastiko** horrek **ondorio negatiboak** ekar ditzake gure Zuzenbidezko Estatu Konstituzionalarentzat, eta ondorioz, elkarbizitzari¹⁰⁸.

V. AZKEN ONDORIOAK: Nola gailendu zen farmazeutikoaren kontzientzia, emakumearen eskubideak bigarren mailan geratuz

- Nola gailendu zen farmazeutikoaren kontzientzia...

KAREN epaia aztertu dugunean, gaiaren konplexutasuna eta lantzen ziren gai aniztasuna zela eta, lanketa bideratzeko nagusiki bi eremu hautatu genituen: batetik, **kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoa** eta bestetik, gatazka juridikoan jokoan

¹⁰⁷ KAE 2014-05-29 (RTC 2014, 83) Magistratuak KAREN jurisprudentzia berria gogorarazten du. Haren arabera, farmazia ezinbesteko eragile bat da osasun publikoa babesteko (EK 43.2 eta 51.1), interes publikokoa den establezimendu pribatu bat kontsideratuz. Epaiak adierazten duen moduan, horrek esan nahi du farmaziek eta baita farmazeutikoek ere hainbat obligazio eta muga dituztela

¹⁰⁸ KAE 145/2015 OJ “(...) *En ella se lleva a cabo, de forma encubierta, un drástico overruling de la doctrina constitucional pergeñada durante décadas en plena sintonía con los instrumentos internacionales de protección de los derechos humanos. Este drástico cambio doctrinal puede tener consecuencias aciagas para nuestro Estado Constitucional de Derecho y, en definitiva, para el equilibrio de nuestra convivencia*”.

zeuden **interesen arteko ponderazioa**. Izan ere, guretzat interes bereziko gaia da, azkenean ikustea, non geratzen diren **emakumearen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubideak, farmazeutikoak kontzientzia-eragozpena** alegatzen duenean.

80. hamarkadatik hasita, doktrinan eta jurisprudenzian, gatazkatsua izan da kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoaren gaia. Izan ere, lanaren azterketa teorikoan ikusi ahal izan dugun moduan, ez dago adostasunik kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoari buruz.

Hala ere, doktrina eta jurisprudenziaren ikuskerak, bitan sistematizatu zitezkeen. Batetik, EK-ko 16.1 artikulutik, zuzenean eta legeak aurreikusi beharrik gabe, kontzientzia-eragozpenerako eskubide bat zegoela ondorioztatzen zutenak. Bestetik, EK-ko 16.1 artikulutik, zuzenean, kontzientzia-eragozpenerako eskubidea ondorioztatzen ez zutenak. Guk bat egiten dugu doktrinaren bigarren taldearekin. Hauen aburuz, legea aurreikusi beharko litzateke, kontzientzia-eragozpena eskubide gisa baliatzeko aukera.

Nahiz eta ez den erraza KAK kontzientzia-eragozpenaren inguruan emandako epai guztietatik teoria orokor bat ondorioztatzea, epai hau eman arte, bazirudien KAREN jurisprudenzia nolabait finkatua zegoela.

2015. urtean, KAK farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aztertu behar zuenean, uste izan zen, kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoaren inguruan, argitasuna emango zuela. Baina, ez zen horrela izan. Izan ere, epai honek zalantza, kritika eta eztabaida ugari sortu zituen.

Alde batetik, KAK ez zuen *interpositio legislatorisaren* inguruan, inolako datu berririk eskaini. Beste alde batetik, polemikoa izan zen KAK farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aitortzeko erabili zuen argudiaketa.

Esan bezala, KAK 145/2015 epaian, ez zuen kontzientzia-eragozpenaren inguruko azalpen berririk eman, batzuk espero zuten moduan. Izan ere, KAK farmazeutikoari babesa emateko, 53/1985 epaia hartu zuen oinarritzat.

Ildo honetatik, epai hau eman arte, KAK emandako **53/1985 epaia berezia** zen, eman zenean ere, gai honi dagokionean, gatazkatsua. Epai honen bidez, KAK osasun-profesionalei kontzientzia-eragozpena aitortu zien, kontsideratuz kontzientzia-

eragozpena EK 16ko oinarrizko eskubidearen parte dela¹⁰⁹. Ildo beretik, aztergai izan dugun 145/2015 epaian, bi kasuen *paralelismoa* aitortuta, KAK 53/1985 epaiaren argudiaketarekin bat egin zuen. Hain zuzen ere, atzean *nasciturusaren bizitzaren babesa* zegoela kontsideratu zuelako.

Hain zuzen, BPk ondorio abortiboak izatea edo ez izatearen kontsiderazioak, **errelebantzia juridiko** itzela izan du epai honetan. Izan ere, epaiak kontsideratu zuen *duda razonable* delakoan oinarrituta, BPk ondorio abortiboak izan zitzaizkela. Eta bide horretatik, 53/1985 epaiaren argudio juridikoari lotu zitzaion, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena maila gorenean babestuz.

Aldiz, teknikoki BP **larrialdiko antisorgailu**¹¹⁰ gisa kalifikatuta dago eta hori kontuan hartuta, gure ustez, ez da ulertzen nola litekeen KAK kontsideratzea, ondorio abortiborik ez duen pilula bat saltze soilak, kontzientzia arazoak sortu ditzakeela, eta are gutxiago, kontzientzia-eragozpena aitortu EK 16ko oinarrizko eskubidearen edukiaren parte gisa. Baina KAK, ez zuen BParen *kalifikazioa tekniko* hau kontuan hartu, eta, 4. OJ-an, adierazi zuen BParen efektu abortiboari buruz, “**zalantza funtsatu**” delakoa zuela.

Izan ere, farmazeutikoaren **kontzientzia-eragozpena** alderatzen badugu **osasun-profesionalen abortuekiko kontzientzia-eragozpenarekin**, ikus dezakegu nola gaur egun 2010eko Legeak¹¹¹ **parte hartze zuzena** exijitzen dien osasun-langileei, abortuekiko kontzientzia-eragozpena baliatzeko¹¹². Ordea, KAren 145/2015 epaiak, farmazeutikoari kontzientzia-eragozpena alegatzeko eskubidea aitortu zion, **ustez gertagarri zen abortu baten aurrean inolako partaidetza zuzenik** eduki gabe.

¹⁰⁹ Izan ere, 53/1985 epaian, konstituzio kontraketaren helegite bat tarteratu zen, 1985. urteko Zigor kodearen 417 bis artikulua aurka. Izan ere, artikulua horren bidez, abortua zenbait kasutan legezkoa izatera pasa zen. Alegia, epai horren gai nagusia zen aztertzea abortuaren despenalizazioa konstituzioarekin bat zetorren ala ez. Epai horren helburu nagusia, ez zen osasun-profesionalen kontzientzia-eragozpena aztertzea. Hala ere, KAK adierazi zuen, EK-ko 16. artikulutik, ondorioztatu zitekeela kontzientzia-eragozpena. Ondorioz, KAK lortu zuen Zigor Kodearen erreforma konstituzio kontrakoa ez deklaratzeko, baina, aldi berean, kontzientzia-eragozpenaren izaera juridikoaren inguruan, KAren doktrinaren ildoak hautsi zen.

¹¹⁰ Azterketa teorikoan ikusi ahal izan dugun moduan, Munduko Osasun Erakundeak eta Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak, **BP larrialdiko antisorgailu gisa kalifikatu dute**. Horren arabera, efektuak kontrazepzioak dira, eta ez, abortiboak.

¹¹¹ 2/2010 Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legeak, *Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo*.

¹¹² Honela dio 2/2010 Legeak 19.2.II artikuluan: *Los profesionales sanitarios directamente implicados en la interrupción voluntaria del embarazo tendrán derecho de ejercer la objeción de conciencia sin que el acceso y la calidad asistencial de la prestación puedan resultar menoscabadas por el ejercicio de la objeción de conciencia*.

Ildo honetatik, ikusi daiteke 2/2010 Legeak muga gehiago jartzen dituela kontzientzia-eragozpena baliatzeko, epaiak farmazeutikoari jarritakoak baino. Izan ere, Legeak kontzientzia-eragozpena baliatu ahal izateko **parte hartze zuzena** exijitzen du. Aldiz, epaiak, kontsideratu zuen nahikoa zela, *ustez* abortua eragiten zuen pilula bat emate soila, farmazeutikoari kontzientzia-eragozpena aitortzeko.

Beraz, KAK arrazoia eman zion farmazeutikoari, polemikoa izan zen argudio batekin. Alegia, **BPk *ustez abortua* sortarazi zezakeela, eta farmazeutikoak alegatu zuen kontzientzia-eragozpenaren atzean, *nasciturusaren* bizitzaren ondasun juridikoa** zegoela.

- Emakumearen eskubideak bigarren mailan geratuz..

Adela Asua Magistratuak dioten moduan, gure *ustez*, epaiak **kutsu ideologikoa** dauka. Aztergai izan dugun epaian, eta baita 53/1985 epaian ere, KArentzat atzean zegoena nolabait “*nasciturusaren bizitza*” zenez, badirudi epaiak farmazeutikoaren konbikzioei garrantzia handiagoa eman ziela, gainerako interesei baino. Alegia, *nasciturusaren bizitza* gailendu nahi duela, gainerako interesen gainetik. Izan ere, KAK kasu honetan, ez zituen aintzat hartu, gure *ustez*, behar zen neurriarekin, **emakumearen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidea**, hala nola honen bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubideak.

Beraz, gure *ustez*, KAKaren epaiaren ondorioz, **emakumearen sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidea** babesik gabe geratu zen. Izan ere, KAK ulertu zuen, epaitu zen kasuari begira, farmazeutikoak BP ez edukitzeak, ez zuela kasu zehatz horretan, inolako emakumeren eskubiderik kaltetu.

Aipatzekoa da ere, epaian egin zen **ponderazio-judizioa kritikatu**a izan zela. Esaterako, Adela Asuak honakoa azaldu zuen:

“(…) *Tampoco resulta admisible el banal ejercicio de ponderación de los intereses en presencia que dice realizar la Sentencia*”.

Gure *ustez*, epaiak ez zien emakumearen eskubideei behar adina kontsiderazio eman. Alde batetik, ez zuen aintzat hartu ordenamendu juridikoaren arabera farmazietan saldu beharreko medikamentuak direla. Beste alde batetik, ez zuelako kontuan hartu

farmazia **establezimendu pribatua** izanagatik, **legez ezarritako interes publikoa duela**. Ondorioz, KAK farmazeutikoak alegatutako **kontzientzia-eragozpenaren eta jokoan dauden interesen arteko ponderazioa desegokia** izan zen gure ustez. Bat egiten dugu uste dutenekin, KAK ez zituela behar zen indarrarekin, kontuan hartu gainerako eskubideak.

Are gehiago, KAK ez zuen datu objektiborik eman, frogatzeko farmazeutikoak ez zituela emakumearen eskubideak kaltetu BP eskuratzerako orduan.

Lanaren azterketa teorikoan ikusi dugun moduan, zenbait **autonomia erkidegok** beraien legerietan farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikusi dute. Aldi berean, legeri autonomiko horietan, emakumeen eskubideak bermatzeko neurriak hartzera behartu dituzte Administrazioak. Araudi horien arabera, inoiz ezin daitezke emakumearen eskubideak kaltetu, farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena baliatzeko.

Aztergai izan dugun kasuari helduz, Andaluziako legeri autonomikoetan, ez da aurreikusten farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena, horrela presumitu daiteke emakumeak farmazia orotan aurkitu ahal izango duela BP. Horren ondorioz, ez dira neurriak aurreikusten emakumeen eskubideak bermatzeko. Baino, epaiak farmazeutikoari kontzientzia-eragozpena aitortu zion, emakumeen eskubideak bermatzeko inolako neurririk aurreikusi gabe. Azpimarratzekoa da, beraz, 145/2015 epaiak sortu duen **segurtasun juridiko eza**.

Ildo berean, farmazeutikoak nahiz KAK ez zuten kontuan hartu farmazeutikoak BP ez saltzeagatik, gero **emakumeari erator lekizkiokeen kalteak**. Izan ere, BP **larrialdizko antisorgailu** bat denez, bere eraginkortasuna jaitsi egiten da geroz eta beranduago hartu. Gainera, lehenengo 72 orduetan bakarrik du efektua. Honekin adierazi nahi duguna da, BP behar denean, ahalik eta azkarren lortu behar dela bere efektuak eduki ditzan. Hain zuzen ere, BP emateko zailtasunak jartzen badira, haurdunaldia gertatu ez geroz, ondoren abortua praktikatzeko beharra etorri daiteke. Horrek sortarazi ditzakeen kalte gehigarriekin.

Gure ustez, aukera egokia litzateke, epai honek utzi duen egoera *nolabait konpontzeko*, Andaluziako legeri autonomikoan farmazeutikoaren kontzientzia-eragozpena aurreikustea eta aldi berean, Administrazioak emakumearen eskubideak

bermatzeko neurriak hartzea. Izan ere, modu honetan, ez lirateke **emakumearen eskubideak bigarren mailan geratuko.**

Beraz, epai honek agerian utzi dituen hutsuneen aurrean, egoki deritzogu irtenbide bat proposatzea, hain zuzen ere, **emakumearen eskubideak eta farmazeutikoaren kontzientzia bateragarri** egingo dituen. Baina irtenbide hori ezin denean eman, edo gainerako eskubideak urratzen diren momentuan, gure ustez, farmazeutikoaren kontzientzia bigarren maila batean geratu beharko litzateke emakumearen eskubideak gailenduz.

Izan ere, KAK emandako epai honen ondoren, galdera da: nola bermatzen dira emakumeen eskubideak farmazeutiko batek BP salduko ez diola esaten dionean? KAK emandako erabaki hori hedatu al daiteke gainerako farmazeutikoetara? Izan ere, kasu honen ondorioz gerta daitekeena arriskutsua dela iruditzen zaigu. Zeren aztergai izan dugun kasuan epaiak azaldu zuen farmazia Sevillako erdigunean zegoela eta beste farmazia asko zeudela ondoan. Baina, eta horrela ez bada?

Gai honen inguruan, legegileak kontzientzia-eragozpena eta emakumeen eskubideak uztartzeko lege bat egingo balu, tartean dauden eskubide eta interesak babesteko, neurriak hartu beharko lituzke emakumeek ez dezaten oztoporik eduki BP erosteko beharra badute.

Baina, araudirik gabe, eta kontuan hartuta jokoan **interes orokorreko** gaiak daudela, hala nola, emakumeen eskubidea KBP eskuragarri izateko, ez dugu kontsideratzen farmazeutikoak objektatzeko eskubiderik izan beharko lukeenik. Bide batez, kontuan hartuta BP iritzi teknikoaren arabera larrialdiko antisorgailua dela, eta ez, aldiz, abortiboa, hainbatek uste izan duten moduan, premisa ideologikoetan oinarrituta.

Kasu honetan, BPri kontzientzia-eragozpenari dagokionean, gure ustez, **KAK erabakirik kaltegarriena eman zuen emakumearen eskubideentzat.** Izan ere, farmazeutikoaren **kontzientzia-eragozpena gailendu zen, emakumearen eskubideak bigarren mailan geratuz.**

BIBLIOGRAFIA

CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia: estructura y pautas de ponderación. Cuadernos de Derecho Constitucional*. España: Bosch, 2013.

CAPODIFERRO CUBERO, Daniel, *La objeción de conciencia a la interrupción del embarazo*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2015.

CASTRO JOVER, Adoración. “La libertad de conciencia y la objeción de conciencia individual en la Jurisprudencia constitucional española” in *La libertad religiosa y de conciencia ante la justicia constitucional. Actas del VIII Congreso Internacional de Derecho Eclesiástico del Estado, Granada, 13-16 de mayo de 1997*, Comares, Granada, 1998.

DE MIGUEL BERIAIN, Iñigo, “La objeción de conciencia del farmacéutico: una mirada crítica”, *Revista de Derecho UNED*, 6.zk., 2010.

GÓMEZ SALADO, Miguel Ángel, “Los farmacéuticos y la objeción de conciencia para el suministro de la <<pildora del día después>>” *Revista Aranzadi Thomson Reuters*, 9.zk., 2015.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Educación para la ciudadanía democrática y objeción de conciencia*. Madrid: Dykynson, 2008.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho de la libertad de conciencia, vol. II, conciencia, identidad personal y solidaridad*, 4.ed. Madrid, Civitas, 2011.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio, *Derecho a la libertad de conciencia, vol. I, Conciencia, tolerancia y laicidad*, 4.ed. Pamplona: Civitas, 2011.

MARTÍNEZ-TORRÓN, Javier, “La objeción de conciencia farmacéutica en la reciente jurisprudencia constitucional española: otra oportunidad perdida”, en *Revista General de Derecho Canónico y Derecho Eclesiástico del Estado*, núm 39, 2015.

MARTÍNEZ-TORRÓN eta NAVARRO-VALLS, *Conflictos entre conciencia y ley, Las objeciones de conciencia*. Madrid: Iustel, 2011.

BALIABIDEAK INTERNETEN

Legeak-leyes bilduma:

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

<https://www.ehu.es/documents/2660428/2799934/Legeak17.pdf>

Noticias jurídicas: <http://noticias.juridicas.com>

Thomson Reuters Aranzadi datu basea:

<https://signon.thomsonreuters.com/?productid=WLES&returnto=http%3A%2F%2Fwww.aranzadidigital.es%2Fmaf%2Fapp%2Fauthentication%2Fnotrail%2Fsignon%3F&bhcp=1>

Estatuko Boletin Ofiziala- Boletín Oficial del Estado: <https://www.boe.es/legislacion/>

Elhuyar hiztegia: <https://www.elhuyar.eus/>

Labayru hiztegia: <https://hiztegia.labayru.eus/?locale=es>

Euskal terminologia banku publikoa:

<http://www.euskara.euskadi.eus/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do?ekin=HASIERARA>

JURISPRUDENTZIA

Konstituzio Auzitegia

-Konstituzio Auzitegiaren 15/1982 apirilaren 23ko Epaia.

-Konstituzio Auzitegiaren 53/1985 apirilaren 11ko Epaia.

-Konstituzio Auzitegiaren 160/1987 urriaren 27ko Epaia.

-Konstituzio Auzitegiaren 71/1993 martxoaren 1eko Autoa.

-Konstituzio Auzitegiaren 4150/1988 maiatzaren 11eko Epaia.

- Konstituzio Auzitegiaren 46/2001 otsailaren 15eko Epaia.
- Konstituzio Auzitegiaren 83/2014 maiatzaren 29ko Epaia.
- Konstituzio Auzitegiaren 145/2015 ekainaren 25eko Epaia.

Europako Giza Eskubideen Auzitegia

-*Pichon y Sajus Frantziaren kontrako*, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2001eko urriaren 2ko Epaia. Epaia ikusgarri:

http://www2.womenslinkworldwide.org/wlw/new.php?modo=observatorio&id_decision=267

ARAUDIA

1978ko Espainiako Konstituzioa

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko 1950eko Europako Hitzarmena.

7/1980 Lege Organikoa, uztailaren 5ekoa, Erljio-askatasunari buruzkoa.

2/1997 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Informazio Arloko Profesionalen Kontzientzia Klausula Arautzekoa.

2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, Sexu- eta ugalketa-osasunaren eta haurdunaldiaren borondatezko etendurarena.

48/1984 Legea, abenduaren 26koa, Kontzientzia-eragozpena eta Ordezko Prestazio Soziala arautzen dituen.

14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa, Osasun Orokorrekoa.

8/1998 Legea, ekainaren 16ekoa, Errioxako Autonomia Erkidegoko Farmazien Kudeaketari buruzkoa.

5/1999 Legea, maiatzaren 21ekoa, Farmazia Kudeaketari buruzkoa.

10/2003 Legea, azaroaren 6koa, Andaluziako Elkargo Profesionalak arautzen dituen.

5/2005 Legea, ekainaren 27koa, Gaztela-Manatxako Farmazien kudeaketa-zerbitzua arautzen duena.

29/2006 Legea, uztailaren 26koa, medikamentu eta osasun-produktuen berme eta arrazoizko erabilerarena.

22/2007 Legea, abenduaren 18koa, Andaluziako Farmaziena.

104/2001 Dekretua, apirilaren 30ekoa, farmazietan eduki beharreko gutxiengo medikamentu eta osasun-produktuak arautzen dituena.

- **Beste batzuk**

Lanbide farmazeutikoaren dentologia- eta farmazeutika-etikaren Kodea, 2001eko abenduaren 14ean Espainiako Farmazeutikoen Elkargo Ofizialaren Biltzar Orokorra onartua.

2005eko abenduaren 30eko Agindua, Andaluziako Batzarreko Justizia-Kontseilariaren eta Administrazio Publikoarena.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren inguruan, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak egindako 22^o Ohar Orokorra.